jaunaren esku hartzea **Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak**

No, la estación de Leioa, la estación del metro de Leioa, sí, no, hay algunas, hay que subsanar defectos. Es una estación antigua, entonces parece ser que la idea es ponerla un poco *txukun*, o sea, ponerla en condiciones... Sí, no, tampoco es mucho más, pero se han observado deficiencias, algunas estructurales y otras de alguna manera para ir apuntalando cositas y tal y que, bueno, pues...

Euzko Abertzaleak Taldeko Iban Intervención **Sr. Alcalde, D. Iban Rodríguez**
Rodríguez Etxebarria Alkatearen esku Etxebarria, del Grupo Municipal Euzko
hartzea **Abertzaleak.**

De todas maneras, en la Comisión se puede dar información al respecto.

Euskaraz jarraitu zuen:

Continúa en euskera:

Nik bakarrik, amaitzeko, nahiko nuke eskertu leioaztarrek eduki duten jarrera jaietan. Benetan, nik uste dut, askotan, salatu egiten ditugu gazteak, zer nolako jarrera edukitzen duten gazteek jai giroetan eta horrela. Nik uste dut jai oso onak igaro ditugula, ez dugula eduki horrelako arazo handirik, eta benetan eskertzekoa dela, esparru desberdinetatik hori komentatu digute, bai garbiketaren aldetik, inoiz baino txukunagoa, jai batzuek suposatzen dutenarekin, bada, baina txukunagoa utzi dutela jai lekuak eta hori, giroa oso ona izan zela, adibide bezala, barikuan txosnen inguruan egon zen kriston kontzertu bat eta errespetua zabaldu behar zirenean aurreko abeslariak eta euren tresnak eta ateratzeko, errespetua itzelezkoa izan zela. Eta nik uste dut askotan salatu egiten ditugula horrelako gertaerak eta erantzukizun txarrekin egiten diren ekintzak, eta uste dut benetan, aurtan, benetan txalotzeko modukoa dela eta benetan leioaztar guztiei eskerrak emateko moduko gauza bat. Beste barik, ondo pasa.

Esku-hartze hori aldi berean itzuli zuen osoko
bilkuran zegoen interpreteak, honela:

Intervención que fue traducida de manera
simultánea por el intérprete presente en la
sesión plenaria, de la siguiente manera:

Y yo por terminar sí que quería agradecer la postura concretamente que han tenido los leioaztarras en las fiestas. A menudo criticamos lo que hacen los jóvenes durante las fiestas y yo creo que estas últimas han sido unas fiestas magníficas en las que no hemos tenido ningún problema importante y que realmente es algo que hay que agradecer. Además me lo han comentado desde diferentes áreas; la limpieza, por ejemplo, que, bueno, las fiestas generalmente suponen suciedad, pero bueno, mucha gente ha comentado lo bien que estaban desde este punto de vista, el ambiente también muy bueno. Como ejemplo, el concierto que hubo el viernes en la zona de txosnas, el respeto que mostró la gente cuando tenían que sacar los cantantes los instrumentos, etc. y demás. En fin, yo creo que a menudo criticamos, yo qué sé, a los jóvenes, o en algunas ocasiones, y la verdad es que esta ocasión es todo lo contrario, hay que aplaudirles y hay que felicitar a toda la ciudadanía por estas fiestas que se han desarrollado tan magníficamente. Sin más, pues hasta la próxima

Eta goizeko hamarrak eta hogeita zazpi minutu
direnean, Alkatetza-Udalburutzak ekitaldia
bukatutzat eman du, eta Idazkaritza honi
dagokion akta egiteko agindu dio, adostutako
eran onetsi dena. Hori guztia ziurtatu dut idazkari
nagusia naizen honek

Y siendo las diez horas y veintisiete minutos por
la Alcaldía Presidencia se dio por finalizado el
acto, ordenándose a esta Secretaría, levantar el
acta correspondiente, que quedaba aprobada en
los términos acordados, de todo lo cual, yo la
Secretaria., certifico.

Visto bueno



ADIKZIOEN PLANA

Leioako Udalerria



2022-2026

AURKIBIDEA

1. SARRERA	4
2. ADIKZIOEN TEORIA- ETA INTERPRETAZIO-MARKOAS	5
3. LEGE- ETA ARAUDI-MARKOAS.....	7
4. LEIOAKO ADIKZIOEN ERREALITATEAREN DIAGNOSTIKOA	11
4.1. UDALERRIKO BIGARREN HEZKUNTZAKO IKASLEEI ADIKZIOEI BURUZ EGINIKO INKESTA	11
4.2. AZTERKETA KUALITATIBOA.....	58
5. GOGOETA ESTRATEGIKOA	64
5.1. ERREFERENTZIAZKO ESTRATEGIAK ETA PLANAK	64
5.2. ADIKZIOEN PLANA LEIOAKO UDALEKO BESTE PLAN BATZUEKIN LERROKATZEA	66
5.3. ADIKZIOEN PLANAREN PRINTZIOPIO GIDARIAK.....	68
5.4. ADIKZIOEN TOKI-PLANAREN LEHENTASUNEZKO ILDOAK ETA ILDO ESTRATEGIKOAK	69
5.5. ESKU HARTZEKO LEHENTASUNEZKO ESPAZIOAK ETA KOLEKTIBOAK	70
6. PLANAREN JARDUKETA-PLANGINTZA	71
7. TOKI-PLANAREN JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA ..	82

1. SARRERA

Leioako Udaleko Adikzioen Plana plangintzako, antolamenduko eta koordinazioko tresna estrategiko gisa osatu da eta, prebentzioaren alorrean, 2022-2026 aldian gauzatuko diren programen eta jarduketan multzoa jasotzen du.

Udal-eskumenen testuinguruan, Leioako Udalak, herritarrengandik gertuen dagoen erakunde administratiboa denez gero, funtsezko rola du droga-mendekotasunen eta adikzio-jokabideen aurrean esku hartzeko. Toki-administrazioak prebentziozko, gizarte-integratzaileko, eskaintza mugatzeko eta esku-hartzeak koordinatzeko funtzioak ditu, baina bereziki nabarmengarriak dira prebentziozko ekintzak, zehazki, adingabeei eta gazteei eta biztanle kalteberenei zuzendutakoak. Eskumen-marko horretan sortzen da adikzioei buruzko udal-planak sortzeko beharra, 1/2016 Legean, Adikzioen eta Droga Mendekotasunen gaineko Arreta Integralari buruzkoan, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Adikzioen VII. Planean (2017-2021) ezarritako lehentasunezko jarduketan-ildoekin bat egiten dutenak.

Leioako udalerrriak oso rol garrantzitsua izan ohi du fenomeno horri erantzuna emateko instituzioetatik, eta baliabide ugari eskaini ditu eta bultzada erabakigarriak eman ditu arazoaren hasierako etapetan.

Plan honek, alde batetik, garatu, ebaluatu eta arrakastaz egiaztatu diren ekintzak jaso eta bultzatu nahi ditu, eta, bestetik, behar berrietara eta antzemandako eskakizunei erantzuna emateko beste ekintza eta estrategia batzuk ezarri.

Hura eratzeko, orain arte garatu diren programen eta ekintzen ebaluazio teknikoak aztertu dira, bai eta udalerriko errealitatea hausnartzeko sortu diren parte hartzeko prozesuen bitartez antzemandako beharrak eta horiek plan honi zuzenean eragiten dion legeriara egokitzeko modua ere.

2. ADIKZIOEN TEORIA- ETA INTERPRETAZIO-MARKOA

Konplexutasun handiko fenomeno sozial hedatua dira adikzioak, kausetan eta garapen-prozesuan bat egiten duten elementuak direla medio, bai eta eragin ditzaketen esparru eta arlo anitzak direla medio ere. Gainera, adikzioak aldakorrak dira eta norabide ezberdinak hartzen dituzte denborarekin, gizartearen sentsibilitatearen, substantzia eta jokabide berriak agertzearen, kontsumo-joera eta -testuinguru berrien, eragindako biztanleriaren eta ondorio sozialen arabera.

Adikzioen kausak oso konplexuak eta ezberdinak dira, zaurgarritasun pertsonaleko faktoreei faktore sozialak gehitu behar zaizkielako, eta, horiek are eragin handiagoa dute gatazka- edo krisi-garaietan. Hain zuzen ere, pertsonaren eremu biologikoa, psikologikoa, soziala eta ekonomikoa tartean hartzen dituzte arrisku-faktoreek eragindako bizitzako prozesuek; hau da, pertsonaren barneko edo kanpoko baldintzek eta ezaugarriek, elkarri eragiten diotenenek. Hala, pertsonaren zaurgarritasuna handitzen dituzten sinergiak sortzen dira, eta kontsumoak eta jokabide jakinak adikzio bihurtzeko aukerak ere bai. Azken horiekin batera, ezin dira alde batera utzi babes-faktoreak, jokabide arriskutsua edo adikzioa garatzeko aukerak txikitzen dituzten elementuak, alegia.

Puntu horretara iritsita, garrantzitsua da drogen erabilera edo zenbait jokabide izatea eta adikzio-nahasmendu bat garatzea desberdintzea. Edo, bestela esanda, garrantzitsua da kezka sozial bat eta adikzio-nahasmendu bat bereiztea. Droga-kontsumo edo jokabide guztiak, gehiegizkoak edo osasungaitzak badira ere, ez dira arazotsuak. Izan ere, drogen kontsumoaren edo ausazko jokoen jardunaren emaitza posible bat da adikzioa, ez ordea, bakarra, ez eta probableena ere. Beraz, estrategia ezberdinak eta bereiziak ezarri behar dira prozesuaren fase bakoitzerako.

Hala ere, ezin da ukatu zenbait jokabideren eraginak eta ondorioak arazotsuak izan daitezkeela pertsonarentzat, haren ingurukoentzat eta, oro har, gizartearentzat. Egoera horiek bereziki larriak dira adingabeak kaltetzen dituztenean, zeinen garapen-prozesua kolokan egon daitekeen, eta gizarteko kolektibo kalteberak kaltetzen dituztenean ere bai.

Bestalde, historikoki, *mendekotasun* terminoa adikzio-substantziekin, jokabidearen desoreka konpultsiboak sortzen dituztenekin, lotuta egon da beti. Halere, urteen poderioz, jardun klinikoan tratatu diren kasuetan drogek eragindako sintoma eta arazo antzekoak ikusi ohi dira, tartean substantziarik egon gabe.

Hala, azken urteetan eztabaida plazaratu da substantziarik gabeko adikzioei edo adikzio-jokabideei buruz. Zenbait korrontek adikzio-jokabideak babesteko argudioak dituzte; beste batzuek diotenez, ordea, jokabide horiek ezin dira adikziozkotzat jo, disruptiboak eta konpultsiboak izan ahalko balira ere.

Gaur egun, ikerkuntza berrienen emaitzen arabera, antzaz, adostasun handiagoa dago substantziarik gabe jokabide adiktiboa edo konpultsiboa sor daitezkeela. Horrekin lotuta, DSM V Nahasmendu Mentalen Diagnostikoarako eta Estatistikarako Gidaliburuak,

I. ardatzean, beste kategoria bat jasotzen du, «substanziekin lotutako nahasmenduak eta adikzio-nahasmenduak» izenekoak, non adikzio-nahasmenduzat jotzen den «joko patologikoa», aurreko bertsioetan «bulkaden kontrolaren nahasmendua» atalean jasotzen zena.

Azken urteetan, adikziozkoak izan daitezkeen beste jokabide batzuk adierazi dira ere bai, hala nola Internet gehiegi erabiltzea, baina oraindik ez zaio ekin horri buruzko eta beste jokabide-sindrome batzuei buruzko ikerkuntzari, hortaz, ezin dira nahasmenduzat hartu, gehiegizko jokabidetzat baizik.

Osasunaren Mundu Erakundeak, aitzitik, bideojokoen adikzioa nahasmendu psikologiko gisa definitzen du. Hori zehazten du CIE-11n, Gaixotasunen Nazioarteko Sailkapenean. Kategoriatan, «Jokatzeagatiko nahasmendua» (Gambling disorder) eta «Bideojokoen nahasmendua» (Gaming disorder) bereizi dituzte.

Jokatzeagatiko nahasmendua eta bideojokoen nahasmendua oso antzekoak badira, ere, OMEren ustez, bereizi behar dira, nahasmendu biek profil eta patroi ezberdinak dituztelako, gero eta gazte gehiago ari baitira bideojokoen nahasmendua garatzen ludopata batek tradizionalki izan ohi duen profil psikopatologiko ezberdinarekin.

Adikzio-nahasmendu horiek txertatzea aurrerapauso bat da eta adikzio-jokabideei heltzeko beste ikuspuntu bat dakar, bai prebentzioaren aldetik bai tratamenduaren aldetik.

Bestalde, 1/2016 Legeak, Adikzioen eta Droga Mendekotasunen gaineko Arreta Integralari buruzkoak, adikzio-jokabidetzat edo substantzia gabekotzat jotzen ditu. Beraz, tokiko planetan landu beharreko gaiak dira joko patologikoa edo ludopatia eta teknologia digitalen erabilerekin eta beren aplikazio berrieekin lotutako gehiegizko jokabideak, eta, zehazki, sare sozialen eta bideojokoen erabilerekin lotutakoak. Halaber, jarduketa-eremu gisa hartzen dira Euskal Autonomia Erkidegoko Adikzioen VII. Planean (2017-2021).

3. LEGE- ETA ARAUDI-MARKOA

1/2016 Legeak, apirilaren 7koak, Adikzioen eta Droga Mendekotasunen gaineko Arreta Integralari buruzkoak, beste lorpen garrantzitsu bat ezartzen du esparru horretan, pertsonen osasuna babesten lagundu nahi baitu, bereziki, adingabeena eta kolektibo kaltebereena.

Hona hemen Legearen berrikuntza batzuk:

- Adikzioei diziplina anitzetik eta modu integralean heltzea. Legeak osatutako prebentzio- eta arreta-eredua osasun publikoaren ikuspegian eta politika guztietan osasuna barne hartzean oinarritzen da.
- Osasuna sustatzea barne hartzen du, prebentzioari heltzen dio eskaintzaren murrizketaz bananduta eta osasun-hezkuntza prebentziorako funtsezko oinarritzat gehitzen du. Azken batean, babes-faktoreak sendotzean eta arrisku-faktoreak murriztean datza.
- Alkoholaren salmenta eta kontsumoa kontrolatzeko neurriak gogortzean, bereziki, adingabeei, eta nikotina askatzen duten gailuen araudia tabakoaren araudiarekin berdintzean, hau da, murriztapen berdinak jartzean.
- Adikzio-jokabideak araudian txertatzean ere bai, prebentzioaren, asistentziaren, gizarte-inklusioaren eta eskaintzak murriztearen ondoretarako; zehazki, joko patologikoa eta teknologia digitalen eta beren aplikazio berrien gehiegizko erabilera-jokabideak gehitzen ditu Legeak.

15. artikulua. Prebentzioa familiaren esparruan.

- Administrazio publikoek lankidetzaz eta koordinaziorako bide efektibo eta efizienteak ezarriko dituzte, eskumenak dituzten erakunde publiko guztiak, gurasoen elkarteak eta jarduera-eremu honetan lan egiten duten entitate pribatuak eta irabazi-asmorik gabeko entitate guztiak aintzat hartuta.

16. artikulua.- Prebentzioa esparru komunitarioan.

- Komunitatearen esparruko prebentzioa batez ere udalek eta mankomunitateek egingo dute beren eskumenen arabera, pertsona eta komunitateari eskaintzen dizkieten zerbitzuen hurbiltasuna dela eta.

17. artikulua.- Prebentzioa hezkuntzaren esparruan.

- Hezkuntzaren esparrua funtsezkoa da prebentziozko jardueretan. Horregatik, honako prebentzio-neurri hauek hartuko dira.
- Adin guztietako ikasleak informatu eta sentsibilizatzea substantzien kontsumoari eta neurrigabeko portaerei lotutako arriskuei buruz, arlo hauetan: ausazko jokoak, telebistaren eta teknologia digitalen erabilera (Internet, sare sozialak, bideojokoak, telefonia mugikorra) eta horien aplikazio berriak. Baita adikzio-jokabideek eragin ditzaketen portaera neurriqabeei loturiko arriskuei buruz ere.

18. artikulua.- Prebentzioa arrisku handiko egoeretan dauden adingabeen eta gazteen eremuan.

- Ahal dela, esku-hartzeak adingabearen familiarekin egingo dira, eta gizarte- eta osasun-zerbitzuekin koordinatuko dira, Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen 27. artikuluekin bat.

68. artikulua. -Udalen eskumenak.

- Euskal Autonomia Erkidegoko udalei dagokie, beren lurralde eremuan:
 - Adikzioen udal-plana eta, oro har, adikzioen inguruko programak eta jarduerak egin, garatu eta exekutatzeko, lege honetan, Euskal Autonomia Erkidegoko Adikzioen Planean eta, hala badagokio, foru-planean xedatutakoari jarraikiz.
 - Lurralde-eremu bakoitzean, adikzioen arloko aholkularitza- eta koordinazio-organoak sortzea eta horien funtzionamendu-araubidea egitea.
 - Lege honetan aurreikusitako kontrol-neurriak betetzen diren ikuskatzea eta behatzea.
 - Ikuskatu eta zehatzeko ahala erabiltzea, lege honetan ezarritakoari jarraikiz.

69. artikulua. Aurrekontu-konpromisoak.

- Euskal Autonomia Erkidegoaren, foru aldundien eta udalen aurrekontu orokorrek lege honetan ezarritako jarduerak gauzatzeko beharrezko kredituak aurreikusi beharko dituzte, bakoitzak bere eskumenen barruan, aurrekontu-erabilgarritasunen, onartutako programen eta xede horrekin izenpetutako hitzarmenen arabera.

71. artikulua. Foru- eta udal-planak.

- Lege honen helburuei eta legea egiteko erabilitako irizpideei jarraituz, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Adikzioen Planaren edukiarekiko koherentzia gordez, foru- eta toki-planak plangintza-, antolamendu- eta koordinazio-tresnak izango dira, eta foru, udal eta udalaz gaineko eremuetan - bakoitzari dagokion mailan- adikzioen arloan garatzen diren programa eta ekintzen multzo ordenatua iasoko dute.

2/2016 Legeak, apirilaren 7koak, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoak, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu ondoren apirilaren 14an indarrean sartu zenak, orain dagokigun esparruaren barruan, honako hauek toki-administrazioaren eskumenak direla ezartzen du: 17. artikulua. Udallerrien eskumen propioak.

10) Osasun publikoa sustatzea, kudeatzea, defendatzea eta babestea.

13) Gizarte-zerbitzuak antolatzea, planifikatzea eta kudeatzea.

36) Gazteria-politikak planifikatzea, antolatzea eta kudeatzea.

12/2008 Legeak, abenduaren 5ekoak, Gizarte Zerbitzuei buruzkoak, «Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan gizarte-zerbitzuen prestazioak eta zerbitzuak jasotzeko eskubidea sustatu eta bermatzea, eta, horretarako, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema unibertsal bat arautu eta antolatzea» helburu duenak, ez du prebentzioa aipatzen hitz gako gisa haren xedean, eta, hala ere, zenbait aldiz aipatzen du prebentzioa modu orokorrean, ikuspegi komunitarioarekin eta gertutasunekoarekin bat egiten dutenak, zioen azalpenean aipatzen duen arreta-eredu gisa.

4/2015 Lege Organikoa, martxoaren 30ekoa, Herritarren Segurtasuna Babestekoa. V. kapituluak, zehapen-araubidea arautzen duenak, berrikuntza garrantzitsuak sartzen ditu otsailaren 21eko 1/1992 Lege Organikoaren inguruan.

... «Eta, droga toxikoak, estupefazianteak edo substantzia psikotropikoak kontsumitzearen edo legez kanpo edukitzearen alorrean, hamazortzi urte baino gutxiagokoekin eginiko arau-haustek egoki tratatzeko xedez, zehapena bertan behera uztea aurreikusten da adingabeek tratamendua edo errehabilitazioa onartzen badute, behar badute, edo, bestela, hezkuntzako jarduerak».

10/2015 Legea, abenduaren 23koa, Ikuskizun Publikoetakoa eta Aisialdiko Jardueretakoa.

Haren helburua da Euskal Autonomia Erkidegoko lurraldean garatzen diren ikuskizun publikoak eta aisialdiko jarduerak arautzea, bai eta horiek ospatu edo egiten diren establezimendu publikoek eta espazio irekiek bete behar dituzten baldintzak ere, horien titularrak edo antolatzaileak erakunde publikoak edo pertsona fisikoak edo pertsona juridiko pribatuak izan, irabazi asmorik izan edo ez izan, instalazio finkoetan, higikorretan edo desmuntagarrietan egin eta ohikoan edo aldizka egin.

Zibismoari buruzko Leioako udal-ordenantza, espazio publikoaren erabilera eta hiri-parkearen babesa arautzen dituenak.

Udal-mailan arautzen du drogen eta edari alkoholikoen kontsumoa bide publikoan, 15. artikulua bitartez.

«1. Drogen eta edari alkoholikoen kontsumoak eta armak eta tresna arriskutsuak gainean eramateak arlo horretan indarrean dagoen legerian jasotako arauetara helduko diete.

2. Udaltzaingoak berehala konfiskatuko ditu drogak, substantzia estupefazianteak, psikotropikoak eta armak eta tresna arriskutsuak.

3. Tabakoa kontsumitzeari dagokionez, erabat debekatuta dago udal-bulego guztietan erretzea, aire zabalean daudenetan edo horretarako prestatu diren tokietan izan ezik. Toki horiek zehazten ez badira, bulego horietan debekatuta egongo da erretzea.

4. Alkohola taldean kontsumitzea debekatuta dago horrek eragozpenak sortuko baditu eta beste erabiltzaile batzuek espazio publikoak erabili ezin badituzte.

4. LEIOAKO ADIKZIOEN ERREALITATEAREN DIAGNOSTIKOA

Analisi horren helburua ondorioak ateratzea izan da, testuinguruaren errealitateara egokitutako programen plangintza bikaina egiteko.

Adikzioen errealitatearen diagnostikoa egiteko, inkesta bat luzatu zaie udalerriko Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetako ikasleei, 12 eta 18 urte bitartekoei. Bestalde, taldeak eta elkarrizketak egin dira komunitateko zenbait agenteren ikuspegia eta informazioa jasotzeko udalerriko adikzioen errealitateari buruz.

Erabili den prozedurak komunitatearen parte-hartzea bultzatzean oinarritu da, eta arreta berezia eman zaio biztanleen segmentu ezberdinen ordezkariari.

4.1. UDALERRIKO BIGARREN HEZKUNTZAKO IKASLEEI ADIKZIOEI BURUZ EGINIKO INKESTA


INKESTAREN METODOLOGIKOA	FITXA	TEKNIKOA	ETA
Inkestaren deskribapena	Honako ikastetxeetan Bigarren Hezkuntzan matrikulatutako ikasleei eginiko inkesta: <ul style="list-style-type: none"> • MERCEDARIAS LEIOA • ARTAZA ROMO BHI • BARANDIARAN BHI • OLH LEIOA 		
Biztanle-esparrua	12 eta 18 urte bitarteko ikasleak.		
Denbora-tartea	Informazioa eskuratzeko aldia 2021eko apiriletik ekainera bitartean izan zen.		
Lan-esparrua. Eskuratzeko metodoa	Udalerriko ikastetxe publiko eta itundu guztiei luzatu zaie parte hartzeko gonbita. COVID 19ak sortutako osasun-egoera dela medio, ikastetxe batzuek ikerketan parte hartzeari uko egin diote. Parte hartu duten ikastetxeek ez du baimenik eman ikastetxean sartzeko galdetegiak emateko, eta irakasleak arduratu dira horretaz. Egoera horrek isuria sortu du, jasotako emaitzetan zuzeneko inpaktua izan duena.		
Laginaren deskribapena	DBH 1etik 4ra bitarteko biztanleak eta OLH-koak, ikastetxe hauetan matrikulatutakoak: MERCEDARIAS LEIOA, ARTAZA ROMO BHI, BARANDIARAN BHI ETA OLH LEIOA.		
	477 pertsoez OSATUTAKO LAGINA. 250 mutil, 277 neska.		
Galdetegiaren deskribapena	Galdetegia anonimoa da, idatziz eta aurrez aurre bete beharrekoa ikastetxeko ikasgeletan.		


	<p>Galdetegiak EAEko bi hizkuntza ofizialetan daude.</p> <p>Galdetegia betetzeko batez besteko denbora 35-40 minutu da.</p> <p>Galdetegia 34 itenez osatzen da, honako gai hauei buruzko informazioarekin: aisialdiko ohiturak, lonjen fenomenoak, drogen kontsumoa (hasiera-adinak, gehien kontsumitutako substantziak, arriskuaren pertzepzioa, erosteko eta kontsumitzeko tokiak, kontsumitzeko motibazioak), teknologia digitalen erabilera (sare sozialak, bideojokoak, smartphoneak), ausazko jokoetan eta lineako apustuetan parte hartzea, harreman-estiloak...</p> <p>Galdetegietan eginiko galderaK ESTUDES inkestan (Gobernuaren Ordezkaritza Plan Nazionalerako) eta</p>
<p>Estatistikak aztertzeko tresnak eta prozedurak</p>	<p>SPSS estatistika-programa</p> <p>Tresna horren bitartez eskuratu ahal izan ditugu inplikaturako lagin guztia, deskribapen-analisiak, maiztasunen analisiak eta taula gurutzatuak edo kontingentziakoak, aldagai bat baino gehiago aldi berean aztertzeko.</p>

12 ETA 18 URTE BITARTEKO IKASLEEI EGINIKO INKESTAREN EMAITZAK

LAGINAREN DESKRIBAPENA

Lagina osatuko dute Bigarren Hezkuntzako 477 ikaslek, 12 eta 18 urte bitartekoek. Horietatik % 52,4 gizonak dira eta % 47,6 emakumeak.







AISIALDI-OHITURAK

ASTERO ERABILGARRI DUTEN DIRUA. Oro har, beren gastuetarako 8,76 euro dituzte astero, batez beste, erantzunak euro 1 eta 60 euro artean badaude ere. Ez da alde handirik ikusi generoaren arabera, bai ordea, adinaren arabera; gero eta nagusiago izan, orduan eta gastu handiagoa egiten dute.


ASTEBURUAN IRTETEA



Laginaren % 68,39 asteburuetan irteten dira, eta % 31,61 ez dira inoiz irten. Asteburuetan irteten direnetatik, % 29,13 noizean behin irteten dira, % 12,40 behin edo birritan irteten dira hilean eta % 26,86 astero edo ia astero irteten dira.




Asteburuetan irtearen maiztasunari buruzko datuei genero-ikuspegitik helduta, mutilak neskak baino maiztasun handiagoarekin irtetzen dira, alde handirik ez badago ere. Gizonen % 29 astero edo ia astero irtetzen dira, emakumeak baino % 4 gehiago. Emakumeen % 33 ez dira inoiz irtetzen, gizonak baino % 3 gutxiago.




Ikus dezakegunez, maiztasun txikienarekin irtetzen diren gazteak 12 eta 13 urte bitartekoak dira eta maiztasun handienarekin 17 urtekoak.

ASTEBURUETAN ETXERA IRISTEKO ORDUA




Nabarmengarria da laginaren erdia baino gehiago 22:00ak baino lehen itzultzen dela etxera, zehazki, % 51,30. % 24,1 22:00etatik 23:00etara bitartean itzultzen da, % 14,90 23:00etatik 00:00etara bitartean eta % 9,80 00:00ak baino beranduago.

Generoaren aldetik, mutilak neskek baino beranduago itzultzen dira etxera. Hala, ikus dezakegunez, emakumeen % 55 22:00ak baino lehen itzultzen dira etxera asteburuetan, gizonak baino % 7 gehiago. 22:00etatik 23:00etara bitartean itzultzeko ordua % 5 handiagoa da emakumeen artean gizonen artean baino. Aitzitik, 23:00etatik aurrera, 23:00etatik 00:00etara bitartean itzultzen direnen artean % 8 gehiago dira gizonak emakumeak baino, eta 00:00etatik aurrera itzultzen direnen artean gizonak % 4 gehiago dira. Hortaz, ondorioztatzen denez, emakumeak nagusi dira etxera 23:00ak baino lehen itzultzen direnen artean eta ordu horretatik aurrera gizonen ehuneko handiagoa da.




12 eta 17 urte bitartean, etxera 23:00ak baino lehen iristea da ohikoena. Hala ere, laginaren gehiengoa adingabeak direla kontuan hartuta, harrigarria da eta arrisku-faktore bat osatzen du 00:00etatik aurrera itzultzen diren 12 eta 16 urte arteko adin-multzoaren ehunekoak, zehazki, 12 urteko laginaren % 4,23, 14 urteko taldearen % 4,71, 15 urteko laginaren % 11,45 eta 16 urteko taldearen % 20,83.

LONJEN FENOMENOA




% 78,81ek esan dutenez, inoiz ez dute lonjarik eduki. % 9,67k esan dutenez, lonja dute eta, % 11,32k adierazi dutenez, lonja eduki dute, orain, ordea, ez. Datu harrigarria da, galdetegiak pandemiaren osteko egoera zailean erantzun direlako eta une horretan debekatuta zegoelako lokaletan, txokoetan edo lonjetan biltzea.

Ez dugu alde handirik ikusi nesken eta mutilen artean. Nesken % 10,18k eta mutilen % 9,20ek lonja dutela esan dute. Mutilen eta nesken % 79k esan dutenez, ez dute inoiz eduki.



Adinaren inguruan, gai honetan 18 urteko taldea da nagusi, % 30ek lonja dutela adierazi baitute. Hala ere, harrigarria da Leioako zenbat adingabek adierazi duten lonja dutela, aurreko grafikoan ikusten den moduan.

KIROLA ETA KULTURA-JARDUERAK




Laginaren % 83,8k kirol- edo kultura-jardueraren bat egiten dute eta % 57,60ek astero egiten dute.

Kultura- edo kirol-jarduerari dagokienez, ez dago alde handirik gizonen eta emakumeen artean, mutilek puntuazio handiagoa badute ere kirol- edo kultura-jarduerarik astero egiterakoan, % 61,94 eta % 53,33.

DROGA-KONTSUMOA


TABAKOA



Tabako-kontsumoaren inguruan, laginaren % 73,90ek ez dute inoiz erre, Drogak eta eskolak IX ikerketaren oso ehuneko antzekoa (% 74,2). Bestalde, Leioako laginaren % 18,40ek esan dutenez, tabakoa erre dute noizbait, eta % 7,70ek astero edo egunero erretzen dute.


Tabakoa kontsumitzen hasteko batez besteko adina 13,12 urte da.

Ikerketan jasotako datuen arabera, neska gehiagok kontsumitzen dute tabakoa, aldea oso deigarria ez bada ere. Hala, laginako nesken % 7,97k astero edo egunero erretzen dute eta mutilen % 7,63k ere bai.




Bestalde, astero edo egunero erretzen dutenen ehunekoa handitzen da adina handitu ahala, eta adin nagusiak 13 eta 14 urte dira.

ALKOHOL-KONTSUMOA




Alkohola da Leioako ikasleek gehien kontsumitzen duten droga. Hala ere, inkestaturen ia erdiak, % 45,60ek zehazki, ez dute alkoholik inoiz probatu, % 45,60ek behin edo birritan hartu dute eta % 8,30ek astero kontsumitzen dute. Azken hilabeteari buruz galdetzean, laginaren ia % 10ek adierazi dutenez, ia astero kontsumitu dute alkohola.



Tabako-kontsumoan bezala, generoaren arabera ez da alde handirik ikusi alkohola noizbait kontsumitu dutenen artean, aurreko grafikoan ikusten denez. Hala ere, alkohola noizbait kontsumitu dute neska gehiagok eta maiztasun handiagoarekin, gutxiगतik, ordea. Hala, alkoholik probatu ez dutenen artean, neska (% 44) baino mutil (% 46,99) gehiago daude. Gainera, nesken laginaren % 8,89k eta mutilen % 8,03k alkohola kontsumitzen dute astero.


ALKOHOLDUN EDARIRIK HARTU DUZU NOIZBAIT




Leioan alkohola kontsumitzen hasteko batez besteko adina 12,88 urte da, laginakoen artean, eta Drogak eta eskola IX azterketan emandako batez besteko adina, ordea, 13,22.

Ikusten dugunez, adina handitu ahala, kontsumo-maiztasuna handitzen da ere bai. Hala ere, arrisku-faktore gisa hartu behar dira 12 urtetik aurrerako adin-multzoaren asteko kontsumoen ehunekoak, aurreko grafikoan ikusten denez.

ALKOHOLIK EDAN DUZU AZKEN 30 EGUNETAN? ADINAREN ARABERA




14 urteko gazteen % 21,18k eta 15 urteko gazteen % 24,41ek edari alkoholikoak kontsumitu dituzte behin edo birritan azken hilabetean. Gainera, 16 urteko gazteen % 20,59k, 17 urteko gazteen % 31,25ek eta 18 urteko multzoaren % 40ek adierazi dutenez, edari alkoholikoak kontsumitzen dituzte astero.




Kalean edatearen edo «litroak edo botiloia egitearen» fenomenoari dagokionez, % 66ek adierazi dutenez, inoiz ez dute litrorik egin; aitzitik, % 24,9k esan duenez, behin edo birritan egin dituzte eta % 8,7k astero egiten dituzte. Oro har, neska gehiagok egin dituzte litroak noizbait. Inkestatutako nesken % 10,62ek esan dutenez, litroak egiten dituzte astero, mutilen artean, % 7,26k.


«Litroen» jarduna handitzen da adina handitu ahala.




Aurreko grafikoan islatzen da azken hilabetean egindako botiloia adin-multzoaren arabera; hura behatuz gero, ikusiko dugu litroak astero egiten dituzten pertsonen ehunekoak gora egiten duela adina handitu ahala. Deigarria da 12 eta 13 urteko adin-multzoaren analisia, adierazi dutenez, azken hilabetean litroak astero egin dituztelako; ehunekoa oso txikia bada ere, % 1 eta % 2 hurrenez hurren.



Leioako gazte gehienek (% 40,17k) alkohola eskuratzen dute 18 urte baino gehiago dituzten beste gazte batzuen bitartez. Hala ere, inkesten arabera, gazteen % 31,62k zuzenean lortzen dute alkohola, eta hori oso deigarria da laginaren % 96,19 adingabeak direlako.




Nesken ia erdiak (% 44,74ek) alkohola lortzen dute 18 urteko edo gehiagoko pertsonen bitartez, eta % 34,21ek zuzenean lortzen dutela esan dute. Mutilen kasua antzekoa da; % 35,59ek esan dutenez, alkohola 18 urte baino gehiagoko pertsona baten bidez lortzen dute, eta % 30ek esan dutenez, beraiek erosten dute zuzenean. Bien artean ehuneko handi batek, % 12ek eta % 25ek hurrenez hurren, ez dute adierazi nola lortzen duten alkohola.




Erantzunak adinaren arabera aztertuz, ikus dezakegu 12 urteko taldeak baino ez duela esan alkohola ez duela zuzenean lortzen; bestalde, 13 urteko gazteek zuzenean eskuratzen dute. Nabarmendu behar da, 13 eta 17 urte bitartekoen artean, gehienek 18 urte baino gehiagoko pertsona baten bidez lortu dutela alkohola. 18 urteko taldean, ordea, gehienek, %70ek, zuzenean erosi edo eskuratu dute.

ALKOHOLA EROSTEKO TOKIAK




Inkestatu gehienek alkohola supermerkatuetan erosten dute, zehazki, % 61,47ek. % 8,72k tabernetan erosten dute.


% 22,47k ez dute zehaztu alkohola non eskuratzen duten. % 7,34k esan dutenez, elikadura- eta gozoki-dendetan erosten dute.



Emaitzak generoaren arabera aztertuz gero, nesken eta mutilen ehuneko berdinak (% 63k) alkohola supermerkatuetan eskuratzen du. Tabernetan edo diskoteketan, berriz, mutilek (% 7,41ek) baino neska gehiagok (% 10,48k) eskuratzen dute.




Alkohola kontsumitu dutela dioten pertsonen artean, % 68,40ek espazio irekietan egin dute azken hilabetean (plazak, kaleak, parkeak...), % 7,5ek etxean edan dutela aitortu dute, % 5,20ek tabernetan edan dutela esan dute, lonjetako ehuneko antzekoa, eta % 4,20ek diskoteketan. Kontsumo-tokiak generoaren arabera aztertuz gero, alde handirik ez dagoela ikus dezakegu berriz. Genero biek hautatzen dituzte espazio publikoak alkohola kontsumitzeko, adibidez, kaleak, plazak edo parkeak (nesken % 77,33k eta mutilen % 63,81ek).




Noizbait edan duten pertsonen % 56,03k alkohol-kontsumorik handiena jaietan egiten dute, esaterako, inauteritan, Gabonetan edo Leioako jaietan. Bigarrenez, oporretan, eta, azkenik, ikasturteko asteburuetan (% 28,88k eta % 15,09k hurrenez hurren). Generoaren arabera, neskek zein mutilek edaten dute jaietan gehien, ondoren, oporretan, eta, azkenik, ikasturteko asteburuetan.

Baina kontsumorik handiena adinaren arabera aztertzen badugu, ikus dezakegu 12 eta 16 urte artekoek gehiago edaten dutela jaietan, ondoren, oporretan, eta, azkenik, ikasturteko asteburuetan. Aitzitik, 17 urteko multzoa aztertuz, ehunekorik handiena jaietakoa da, eta, ondoren, asteburuetakoa. 18 urteko pertsonak aitortu dutenez, berdinduz edaten dute jaietan eta ikasturteko asteburuetan.




Laginaren erdia baino gehiago, % 75,80, ez dira inoiz mozkortu; % 19,32k esan dutenez, behin edo birritan mozkortu dira eta % 4,67k aitortu dutenez, ia astero egiten dute.

Lehen mozkorraren batez besteko adina 14 urte dira, Drogak eta eskola IX inkestako datuaren antzekoa: 14,30 urte.




Emakume baino gizon gehiago ez dira inoiz mozkortu (% 72,15 eta % 78,51 hurrenez hurren), baina emakume baino gizon gehiago mozkortzen dira astero. Noizbehinkako mozkorre dagokienez, emakumeak dira nagusi, gizonak baino (emakumeen % 23,74 eta gizonen % 15,70).




Inoiz mozkortu ez diren pertsonen ehunetik handiena 12 eta 13 urte-multzoan dago (% 95,95 eta % 92,31, hurrenez hurren). 14 urteetatik aurrera, noizbehinkako mozkorren maiztasuna handituz doa: % 20,78 14 urteko pertsonen kasuan eta % 60 17 urtekoen kasuan.

ALKOHOLA KONTSUMITZEKO ARRAZOIAK




Leioako udalerriko ikasleei eginiko inkestan, alkohola edateko arrazoi nagusiak adierazteko eskatu zaie. % 39,83k esan dutenez, ondo pasatzeko eta dibertitzeko egiten dute; jarraian, honako arrazoi hauek aipatu dira gehien: lagunekin egoteko modu bat, hitz egiteko (% 28,05), zaporea eta apur bat edanez gero nola sentitzen diren gustatzen zaie (% 9,95) eta lotsa galdu eta taldean hobeto integartzeko (% 4,98). Ez dago alderik adinaren arabera.




Arrazoiak generoaren arabera aztertzen baditugu, ikusiko dugu ez dagoela alde handirik. Aurrez aipatu ditugu gizonak eta emakumeak

alkohola edateko eman dituzten arrazoi nagusiak. Hala ere, deigarria da laginako mutilek ez dutela uste beren aisialdiak lotura handia duela alkoholaren kontsumoarekin. Nesken % 2k, ordea, horixe uste dute.

EDARI ENERGETIKOAK





% 67,6ek edari energetikoak probatu dituzte, esaterako, Monster, Energy, Red Bull... Laginaren % 17,10ek esan dutenez, noizbait edan dituzte azken hilabetean, eta, Leioako gazteen % 10,90ek esan dutenez, egunero edaten dituzte. Zehazki, inkestatutako mutilen % 69,8k eta nesken % 66,5ek probatu dituzte edari energetikoak. Eguneroko kontsumoa aztertuz gero, laginako mutilen % 14,8k eta inkestatutako nesken % 6,6k hartzen dituzte. Adin-multzoaren arabera aztertuz, eguneroko kontsumoa 12 eta 16 urte bitartekoek egiten dute.




Laginaren % 28,45ek adierazi dutenez, edari energetikoak alkoholarekin nahasita edan dituzte noizbait; laginako mutilen % 27,3k eta nesken % 30,3k. Adin-multzoen inguruan, analisisan ikusten denez, kontsumo hori 14 eta 18 urte artekoek egiten dute nagusiki.

KANABIS-KONTSUMOEA




Kanabis-kontsumoaren (haxix edo marihuana) maiztasunari edo aldizkakotasunari dagokienez, laginaren % 15,97ek esan dutenez, kanabisa probatu dute noizbait, beraz, ehunekorik handiena osatzen dute kanabisik probatu ez dutenek, guztizkoaren % 84,03ak. Probatu dutenen artean, % 10,71ek esan dutenez, noizean behin erre dute edo erretzen dute; % 2,94ek asteburuetan eta % 2,31k egunero.



Datu horiek generoaren arabera aztertuta, mutil baino neska gehiagok ez dute inoiz erre: % 82,93 eta % 85,52 hurrenez hurren. Neskek puntuazio handiagoa dute aldizkako kontsumoetan (% 11,31 neskek eta % 9,76 mutilek); halere, eguneroko kontsumoari dagokionez, mutilek dute neskek baino ehuneko handiagoa: % 4,07 mutilek eta % 0,45 neskek.

Estatistika-tresnaren bidez aztertutako datuetan 12 urte baino gehiagoko zenbait gaztek kanabisa noizbait probatu dutela badiote ere, datu hori «behin edo birritan» aldagarriaren barruan dago. Gazteek adierazi dutenez, 15 urtetik aurrera kontsumitzen dute asteburuetan eta 16 urtetik aurrera egunero.

«Noizbait» maiztasunean sailkatutako kontsumoek kontsumo esperimentalei egiten diete erreferentzia, azken urtekoek eta azken hilabetekoek, ordea, azterketan parte hartu duten Leioako gazteen bizi-estiloetan ezarritako kontsumorik ohikoenak adierazten dizkigute. Hala ere, ez dago alde deigarrik. Laginaren % 11,6ek esan dutenez, kanabisa noizbait kontsumitu dute azken urtean, eta, % 10,3k adierazi dutenez, noizbait kontsumitu dute azken hilabetean. Bestalde, laginaren % 2,80ek adierazi dutenez, egunero kontsumitu dute azken urtean eta inkestaturako gazteen % 2,40ek egunero azken hilabetean.




Generoaren araberako analisisan, azken hilabeteko aldagaiari helduta, ikus dezakegunez, kanabisa noizbait kontsumitzen dute mutil gehiagok, neskek baino (mutilen % 12,02ek eta nesken % 8,92ek). Hala ere, neska gehiagok kontsumitzen dute aldizka edo asteburuetan, eta

mutil gehiagok egunero (mutilen % 4,29ek eta nesken % 0,47ek).

Adinaren aldagaiari helduta, azken hilabeteen astero kontsumitu dute 16 eta 18 urte bitartekoek, nagusiki, eta egunero kontsumitu dute 16 eta 17 urte artekoek.


Kanabisa kontsumitzen hasteko batez besteko adina 14 urte dira, Drogak eta eskola IX inkestako datuaren antzekoa: 14,41 urte.



Laginari galdetu zaio nola lortzen edo erosten duten kanabisa normalean. Ehunekorik handienak (% 35,40ek) beste nolabait erantzun zuen. % 31,60ek erantzun zutenez, 18 urte baino gehiagoko pertsona baten bidez. Eta deigarria da, % 22,9k esan zutenez, 18 urte baino gutxiagoko pertsonen bitartez lortzen dutela. Azkenik, % 10,10ek esan dutenez, haiek hazten dute.

Generoaren inguruan, neskak dira nagusi 18 urte baino gehiagoko edo gutxiagoko pertsona baten bidez kanabisa eskuratzean, eta, mutilak, ordea, norberak haztean.


KANABISA KONTSUMITZEKO TOKIAK



Kanabisa azken 30 egunetan kontsumitzeko tokiei dagokienez, laginaren % 66,20ek esan dutenez, beste pertsona baten etxean kontsumitu dute (inkestatutako nesken % 70ek eta mutilen % 61,54ek). Kontsumitzeko hurrengo tokia lonja edo lokala ala kalea edo plaza dira, guztizkoaren % 9,9 (nesken % 13,33k eta mutilen % 7,69k). Jarraian datoz ikastetxetik irtetea edo sartu baino lehen: laginaren % 8,50ek, kasu horretan, gehienak mutilak dira (% 12,82 eta % 3,33). Azkenik, laginaren % 10,26ek beren etxean kontsumitzen dute, inkestatutako mutilen % 5,6ek; neska batek ere ez du aukera hori hautatu.


Kontsumitzeko tokia adinaren arabera aztertzen badugu, ikusiko dugunez, adin-multzo guztiek markatu dituzte erantzun guztiak norbere etxea izan ezik. Aukera hori 16 urtetik aurrerako gazteek baino ez dute aukeratu.

KANNABISA KONTSUMITZEKO ARRAZOIAK




Alkoholarekin egin genuenez, laginako gazteei galdetu genien kanabisa (haxix edo marihuana) kontsumitzeko zer arrazoi nagusi zuten.

Ehunekorik handienak bildu dituzte aukerak hauetan: «lagunekin egoteko modu bat» eta «gozamenagatik, dibertitzeko...», % 30,26 eta % 27,62 hurrenez hurren. Hurrengo aukerak izan dira: beste arrazoi batengatik (% 15,81), etxean, lagunekin edo ikasketetan ditudan arazoetatik ihes egiteko (% 11,84), zaporea eta nola sentiarazten nauen gustuko dudalako (% 9,21), eta, azkenik, lotsa galdu eta hobeto integrazteko (% 5,26).



Generoaren arabera, ikusten denez, mutilek «plazer edo dibertimendua» eta «lagunekin egoteko modu bat» aukerak hautatu dituzte gehien, eta neskek, ordea, «beste arrazoi batentzat» eta «lagunekin egoteko modu bat» aukerak. Bestalde, neska baino mutil gehiagok hautatu dute «zaporea eta nola sentiarazten nau» eta «arazoetatik ihes egiteko» aukerak, eta mutil baino neska gehiagok, ordea, «taldean integratzeko eta parte hartzeko» aukera.

BESTE SUBSTANTZIA BATZUEN KONTSUMOA




Beste substantzia batzuen kontsumoari dagokionez, kezkatzeko moduko datua jaso dugu laginako biztanleen lasaigarrien kontsumoari buruz. Gazteen % 12k esan dutenez, psikofarmakoak kontsumitzen dituzte, errezetarekin edo gabe.


Bigarrenez, laginaren % 4,10ek inhalagarriak kontsumitzen dituzte, % 3,70ek speed edo anfetaminak eta % 3k estasia, mdma eta kokaina. Eta % 3k baino gutxiagok haluzinogenoak, hala nola mongiak eta ketamina

ASTEAN ZEHAR ERABILITAKO DENBORA LIBREKO ORDUAK


a) Bideojokoetan (kotsolak edo ordenagailu pertsonala)



Astean zehar egunero bideojokoetan ematen dituzten ordu-kopuruari dagokionez, % 33,68k bat ere ez dute ematen, eta horiek osatzen dute gehiengoa. % 25,78k ordubete baino gutxiago jolasten dute; % 16,42k ordu 1 eta 2 artean, % 10,40ek 2 eta 3 ordu artean, % 6,44k 3 eta 4 ordu artean, % 3,2k 4 eta 5 ordu artean, % 1,46k 5 eta 6 ordu artean, eta, azkenik, % 2,70ek beren aisialdiko 6 ordu baino gehiago, ikasketa-orduak zenbatu gabe. Drogak eta eskola IX ikerketarekin alderatuz gero, Leioako gazteek ordu batzuk gehiago ematen dituzte bideojokoetan. Ikerketa horretako laginaren % 41,2k ez dute ordurik erabiltzen bideojokoetarako astean zehar, Leioako ikasleen artean, ordea, % 33,68k. Hala ere, sei ordu baino gehiago ematen dituztenen ehunekoak oso antzekoak dira ikerketa bietan (Leioako laginaren % 2,70 eta Drogak eta eskola IX ikerketako laginaren % 2,6).



Datu horiek generoaren arabera aztertzen baditugu, ikus dezakegunez, neskek mutilek baino denbora gutxiago erabiltzen dute bideojokoetan. Nesken % 49,12k eta mutilen % 19,92k esan dutenez, astean zehar ez dute ordu bat ere ez jolasten bideojokoetara. Ikusten dugunez, laginako mutilen % 3,66ek 6 ordu baino gehiago aritzen dira bideojokoetan, kontsoletan eta ordenagailuko jolasetan egunero astean zehar, nesken kasuan, ordea, % 1,33k.





Adinaren aldagaiari helduta, astean zehar bideojokoetan, kontsoletan eta ordenagailuko jolasetan denbora gehien ematen duen laginako taldea 12 urtekoa da. Inkestari erantzun dioten 12 urteko gazteen % 75,34ek astean zehar jolasten dute bideojokoetara.

b) Interneten eta sare sozialetan nabigatzea

Drogak eta eskola IX ikerketarekin alderatzen badugu, ikusiko dugunez, Leioako gazteen laginak ordu gehiago ematen ditu Interneten eta sare sozialetan astean zehar.

Interneten bidez nabigatzeari eta sare sozialak erabiltzeari dagokienez, Leioako laginaren % 5,82ek diotenez, ez dute denbora libreko ordu bat ere ez erabiltzen astean zehar, eta, Drogak eta eskola IX ikerketako % 16,3k ere ez.


% 16,01ek ordubete baino gutxiago ematen dute, % 17,88k (talderik ugariena) ordu 1 eta 2 artean, % 16,01ek 2 eta 3 ordu artean, % 13,72k 3 eta 4 ordu artean, % 12,89k 4 eta 5 ordu artean, % 6,86k 5 eta 6 ordu artean eta % 10,81ek sei ordu baino gehiago egunero; azken horri dagokionez, Drogak eta eskola IX ikerketako laginaren arabera, % 7,2k.



Kasu horretan, gizonen eta emakumeen arteko aldeak ez dira hain deigarriak mutilen % 6,10ek eta nesken % 5,75ek Interneten ordubete ere ez dutela ematen astean zehar. Hala ere, zer taldek ematen dituen ordu gehien begiratu gero, ikusiko dugunez, neskek dira nagusi «3 ordu egunero» tartetik aurrera. Hala, inkestatutako nesken % 13,72k eta mutilen % 8,13k esan dutenez, Internet eta sare sozialak erabiltzen dituzte 6 ordu baino gehiagok egunero. Hortaz, ondorioztatu ahal dugu beren denbora librea baino apur bat gehiago plataforma horietan.

ZENBAT ORDU EMATEN DITUZU ASTEGUNEAN INTERNET, SARE SOZIALAK. ADINAREN ARABERA.


■ 18 URTE ■ 17URTE ■ 16URTE ■ 15 URTE ■ 14 URTE ■ 13 URTE ■ 12 URTE




Internet eta sare sozialen erabilerari buruz adin-multzoen arabera alde handirik ikusten ez bada ere, aurreko grafikoa ohar daitekeenez, 15 eta 16 urteko multzoak du ehunekorik handiena egunero 6 ordu baino gehiago ematen dituztenen artean, % 14,50 eta % 18,31 hurrenez hurren.

ASTEBURUETAN ERABILITAKO DENBORA LIBREKO ORDUAK

a) Bideojokoetan (kontsolak edo ordenagailu pertsonala)




Aurreko aldagaiak aztertzen ditugunean eta asteburuetak erabilera kontuan hartzen dugunean, laginaren % 27,08k ez du ordu bat ere ez ematen bideojokoetan, % 14,38k ordubete baino gutxiago jolasten du egunero, % 14,58k ordu bat eta bi artean, % 14,58k 2 edo 3 ordu artean, % 9,58k 3 eta 4 ordu artean, % 7,08k 4 eta 5 ordu artean, % 4,79k 5 eta 6 ordu artean eta gainerako % 7,52ak 6 ordu baino gehiago. Leioako ikasleen laginak ordu gehiago ematen ditu asteburuetan bideojokoetara jolasten, Drogak eta eskola IX ikerketako laginak baino. Hala, azken aldagai horretan (6 ordu baino gehiago), ikerketa horretako laginaren ehunekoak 4,7 da, eta Leioako laginean, ordea, 7,92, ia bikoitza.




Bideojokoen erabilera-orduen inguruan, generoaren arabera aldea nabariagoa da asteburuan. Aurreko grafikoan ikusten denez, emakumeen % 45,13k eta gizonen % 10,20ek ez dute bideojokorik erabiltzen asteburuetan.

Bestalde, ohar daitekeenez, 1 edo 2 ordutik aurrerako erabilerari dagokionez, gizonen emakumeek baino ehuneko handiagoa dute maiztasun guztietan. Hala, gizonen % 12,65ek eta emakumeen % 2,21ek 6 ordu baino gehiago erabiltzen dituzte bideojokoetarako asteburuetan.




Adinarekin lotuta alde handirik ez badago ere, ikus daitekeenez, 12 urteko adin-multzoak erabiltzen du denbora gehien asteburuetan bideojokoetan jolasten. 12 urteko gazteen % 13,89k bakarrik esan du asteburuetan ez duela ordubete ere ez erabiltzen bideojokoetarako.

b) Interneten eta sare sozialetan nabigatzea




Asteburuetan Internet erabiltzeari dagokionez, laginaren multzorik kopurutsuenak, % 18,09k esan dutenez, 6 ordu baino gehiago nabigatzen dute Interneten. Berriz ere datua bikoizten da lagina alderatzen badugu Drogak eta eskola IX ikerketarekin, non laginaren 9,7k 6 ordu baino gehiago nabigatzen duten asteburuetan.




Asteazkenean gertatzen zenez, asteburuetan emakumeek ere bai ematen dute denbora gehiago Interneten eta sare sozialetan. Hala, laginako emakumeen % 23,45ek eta gizonen % 13,01ek asteburuetan 6 ordu baino gehiago ematen dituzte egunero

Interneten eta sare sozialetan.




Aurreko grafikoan ikus daitekeenez, laginako 18 urteko multzoak erabiltzen du denbora gehien Interneten asteburuetan, «ordu bat ere ez» aldagaian % 0 dago eta. Hala ere, 16 urteko multzoak du ehunekorik handiena 6 ordu baino gehiagoko jardunean, zehazki, multzo horren % 29,58.


AUSAZKO JOKOAK ETA APUSTUAK



Laginareen % 71,84k ez du inoiz apusturik egin, eta, gainerako % 27,54ak, ordea, noizbait egin du.




Generoari dagokionez, mutilen % 65,75ek ez dute inoiz apusturik egin eta % 37,25ek noizbait egin dute. Nesken kasuan, ordea, % 82,59k ez dute inoiz egin eta % 17,41ek noizbait egin dute.



Apustuetan edo ausazko jokoetan gutxien parte hartu du 18 urteko adin-multzoak; adin horretako % 20ek esan dutenez, apustu egin dute edo ausazko jokoetan aritu dira. Bestalde, apustuetan eta ausazko jokoetan gehien aritu 17 urteko pertsonak, eta, ondoren, 16 urtekoak, % 41,18 eta % 29,58, hurrenez hurren.





Jarduna eta maiztasuna azken urtean

Inkestan parte hartu zuten ikasleei apustu-modalitate eta -jokoen inguruan galdetu zitzaizen, zertan jokatzeko duten eta non eta nola apustu egiten duten jakiteko.



Laginaren % 34,27k esan dutenez, makina txanponjaleetara jokatu dute azken urtean, % 36,79k esan dutenez, kirol-apustuak egiten dituzte, % 15,64ek aitortu dutenez, dirua jokoan jarri dute lineako pokerrean edo erruletan, % 13,27k esaten dutenez, partidetan aritu dira dirua tarteko eta % 16,22ek esan dutenez, beste joko batzuetan aritu dira diru truk.

Drogak eta eskola IX ikerketarekin alderatzen badugu, nahiko ehuneko antzekoak aurkituko ditugu ausazko jokoetan eta apustuetan parte hartu ez duten gazteei dagokienez. Hala ere, joko batzuetan Leioako gazteen laginean pixka bat handiagoa da parte-hartzea. Adibidez, Drogak eta eskola IX ikerketako laginean, makina txanponjaleetan parte hartu dute % 16,7k, eta Leioako laginean, berriz, % 34,27k; kirol-apustuetan parte hartu dute Drogak eta eskola IX ikerketako laginaren % 29,3k eta Leioako laginaren % 36,79k; lineako jokoetan, esaterako, pokerrean, apustu egin dute Drogak eta eskola IX ikerketako laginaren % 7,4ek eta Leioako laginaren % 15,64ek (poker edo erruletan).



Generoaren arabera aztertuz gero, ikusiko dugu makina txanponjaleen erabilera oso orekatua dagoela emakumeen eta gizonen artean, nesken ehunekoa pixka bat handiagoa bada ere (% 35,29 eta % 33,59). Lineako jokoetan eta partidetan parte-hartzea oso antzekoa da generoaren arabera, mutilen ehunekoa pixka bat handiagoa bada ere. Azkenik, kirol-apustu alde handiagoa dago emakumeen eta gizonen artean. Laginako gizonek egiten dituzte kirol-apustu gehiago, emakumeek baino, zehazki, inkestatutako gizonen % 51,56ek eta emakumeen % 14,29ek.

LEIOAKO IKASLEEI EGINIKO INKESTAREN ONDORIO OROKORRAK

Aisialdiko ohiturei buruz:

Laginaren % 68,39 asteburuetan irteten da, eta, oso alde handia ez badago ere, mutilak neskak baino gehiago irteten dira, maiztasun handiagoarekin eta beranduago itzultzen dira etxera. 12 urteko gazteen % 47,3 noizbait irten da, baina maiztasun handiagoarekin irteten den adin-multzoa 17 urtekoa da, % 70,59.

Laginaren % 24,6 23:00ak baino beranduago itzultzen da etxera asteburuetan. Datu hori adinaren arabera aztertzen badugu, arrisku-faktoretzat hartuko dugu, honako datu hauek eskuratu ditugu eta: 12 urteko gazteen % 4,23, 14 urteko multzoaren % 4,71, 15 urteko gazteen % 11,45 eta 16 urtekoen % 20,83 00:00ak baino beranduago itzultzen dira etxera.

Gastuetarako asteko batez besteko diru-kopurua 8,76 € da, baina gazte batzuek astero 60 € dituzte.

Harrigarria da lonja dutela dioten gazteen ehunekoak, galdetegia luzatu genienean, bizitzen ari ginen pandemia dela, eta ez baitzegoen baimenduta lokal horietara joatea; hala ere, laginaren % 9,67k une horretan lonja zutela esan zuten.

Udalerriko ikastetxeen % 83,8k kirol- edo kultura-jardueraren bat egiten dute eta % 57,60ek astero egiten dute.

Mutilak gehiago eta maiztasun handiagoarekin aritzen dira, hala ere, ez dago alde handirik.

Drogen kontsumoari

buruz: Alkohol-

kontsumoa:

Alkohola da gehien kontsumitutako droga Leioako ikasleen artean (laginaren % 54,4), hala ere, inkestatuen ia erdiak esan dutenez, ez dute inoiz alkoholik hartu.

Aldea oso handia ez bada ere, oro har, neska gehiagok probatu dute (nesken % 56ek eta mutilen % 53,1ek), eta, astero hartzen dutenen artean, neska gehiago daude ere bai (% 8,89 dira neskak eta % 8,03 mutilak). Alkohola kontsumitzen hasteko batez besteko adina 12,88 urte da. Adina handitu ahala, kontsumo-maiztasuna handitzen da, hala ere, alerta jotzen dute 12 urtetik aurrerako adin-multzoen asteko kontsumoek.

Laginaren % 34ek esan dutenez, «litroak edo botiloia egin» dute noizbait eta neskek egiten dute gehien (% 40,27 dira neskak eta % 28,63 mutilak). Kasu honetan aldea askoz handiagoa da. Inkestatutako nesken % 10,62ek esan dutenez, litroak egiten dituzte astero, mutilen artean, % 7,26ek.

Leioako ikasleen % 4,17k alkohola lortzen dute 18 urte baino gehiago dituzten pertsonen bitartez, hala ere, % 31,62ek zuzenean eskuratzen dute alkohola; datu hori deigarria eta kezkatzeko modukoa da, laginaren % 92,63 adingabeak dira eta.

Laginaren % 68,40ek alkohola kontsumitzen dute toki irekietan (parkeetan, kaleetan, plazetan). Horren ostean, etxeetan, tabernetan, lonjetan, eta, azkenik, diskoteketan edaten dute, eta kontsumo gehieneko aldiak jaiak, inauteriak, Gabonak edo Leioako jaiak dira.

Laginaren % 24,20 mozkortu dira noizbait. Mozkortu diren emakumeen ehunekoa (% 27,85) gizonena baino pixka bat handiagoa da (% 21,49), astero mozkortzen diren gizonen ehunekoa handiagoa bada ere, eta noizean behin egiten dutenen artean, emakumeak dira nagusi.

Lehen mozkorraren batez besteko adina 14 urte da.

Leioako gazteek adierazi dutenez, dibertitzea da alkohola edateko arrazoi nagusia.

Tabako-kontsumoa:

Laginean gehien kontsumitutako bigarren substantzia tabakoa da, zehazki, % 26,1. % 18,40ek adierazi dute tabakoa kontsumitu dutela aldizka eta % 7,70ek astero edo egunero erretzen dute.

Tabakoa kontsumitzen hasteko batez besteko adina 13,12 urte da.

Leioan, neskek eta mutilek berdin esperimentatzen dute tabakoaren kontsumoa, nesken asteroko edo eguneroko kontsumoa mutilena baino pixka bat handiagoa bada ere (% 7,97a neskek eta % 7,63a mutilak).

Kanabis-kontsumoa:

Laginaren gazte gehienek ez dute kanabisa probatu (% 84,03k), baina % 15, 97ek noizbait kontsumitu dute (% 14,48 dira neskek eta % 17,07 mutilak).

Kanabisa kontsumitzen hasteko hasierako adina 14 urte da laginean.

Noizbait kanabisa kontsumitu ote duten galdetzean, eskuratutako datuen arabera, neskek dira nagusi aldizkako kontsumoan (% 11,31 eta % 9,76), baina eguneroko kontsumoari dagokionez, mutilak dira nagusi, % 4,07 dira mutilak eta % 0,45 neskek. Azken hilabeteko kanabis-kontsumoaren datuak aztertzean ikusten dugunez, neskek dira nagusi aldizkako kontsumoan (behin edo birritan), gutxiatik ordea. Hala ere, azken hilabeteetan mutilek eguneroko kontsumo handiagoa egin badute ere (% 4,29 mutilak eta % 0,47 neskek), neskek asteko kontsumo handiago dute (% 2,82 neskek eta % 2,58 mutilak), gutxiatik ordea.

Substantzia hori eskuratzeko modurik ohikoena adinez nagusi den pertsona baten bitartez da (% 31,60). % 22,9k adingabe baten bitartez eskuratzen dute eta % 10,10ek haiek hazten dute.

Azken 30 egunetako kanabis-kontsumoaren tokiei dagokienez, laginaren % 66,20ek beste pertsona baten etxean kontsumitu dute, % 9,9ek lonjan eta kalean edo plazan eta % 10,26ek ikastetxera sartzean edo irtetean eta, azkenik, % 10,26ek beren etxean; azken aukera hori bakarrik adierazi dute mutilek.

Kanabisa kontsumitzeko laginak emandako arrazoi nagusia «lagunekin egoteko modu bat» izan da.

Edari energetikoen kontsumoa:

% 67,6ek probatu dituzte edari energetikoak (mutilen % 69,8ek eta nesken % 66,5ek). % 17,10ek diotenez, noizbait hartu dituzte azken hilabeteetan, eta gazteen % 10,90ek egunero hartzen dituzte (mutilen % 14,8ek eta nesken % 6,6ek). Kezkatzeko moduko datua da 12 eta 16 urte bitarteko eguneroko kontsumoa.

Inkestatuen % 28,45ek edari energetikoak nahasten dituzte alkoholarekin. (Mutilen % 27,3k eta nesken % 30,3k).

Beste substantzia batzuk:

Beste substantzia batzuen kontsumoari dagokionez, puntuazio handiena duten substantziak dira psikofarmakoak, % 12, eta inhalagarriak, % 4,10. Hirugarrenez, *speed* edo anfetaminak daude, % 3,70.

Laburbilduz, Leioako laginean drogei buruz eskuratutako datuen arabera, ondoriozta daiteke gazteek gehien kontsumitzen dutela alkohola, normalean 12 eta 13 urte artean, eta, ondoren, tabakoa, kanabisa, eta, laugarrenez, psikofarmakoak edo lasaigarriak, errezetarekin edo gabe. Zenbait azterketak ohartarazi dutenez, azken urtean substantzia horien kontsumoak gora egin du adingabeen artean. Beraz, prebentziozko programa espezifikokoak landu beharko lirateke horrekin lotuta.

Bideojokoei, Interneti eta sare sozialei buruz:

Bideojokoen erabilerari dagokionez, % 33,68k ez dute astean zehar jolasten (mutilen % 19,92ek eta nesken % 49,12k). Hortaz, neskek askoz denbora gutxiago ematen dute bideojokoetan. Laginako mutilen % 3,66ek 6 ordu baino gehiago ematen dituzte astean zehar, eta nesken % 1,33ek era bai.

Asteburuetan bideojokoetan aritzen diren pertsonen ehuneko handiagoa da. Laginaren % 27,08k ez dute asteburuetan jolasten (mutilen % 10,20ek eta nesken % 45,13k). Mutilek neskek baino ordu gehiago ematen dituzte (asteburuetan egunero 6 ordu baino gehiago ematen dituzte mutilen % 12,65ek eta nesken % 2,21ek).

Astean zehar eta asteburuetan denbora gehien ematen duen adin-multzoa 12 urtekoa da.

Interneten eta sare sozialen erabilerari dagokionez, laginaren % 95,22k Internet eta sare sozialak egunero erabiltzen dituzte, eta % 94,15ek asteburuan.

Generoaren arabera ez dago bideojokoetan bezain alde handirik, neskek denbora libre gehiago erabiltzen badute ere jarduera horretarako, astean zehar eta asteburuan. Hala, astean zehar, nesken % 13,72k eta mutilen % 8,13k 6 ordu baino gehiago ematen dituzte, eta, asteburuan, laginako nesken % 23,45ek eta mutilen % 13,01ek 6 ordu baino gehiago ematen dituztela adierazi dute.

Adin-multzoari dagokionez, 15 eta 16 urtekoek ematen dituzte ordu gehien Interneten, astean zehar eta asteburuan.

Ausazko jokoei eta apustuei buruz:

Laginareen % 27,54ek noizbait egin dute apustu (mutilen % 37,25ek eta nesken % 17,41ek).

Oso kontu deigarria da, adinareen arabera, ausazko jokoetan eta apustuetan gutxien parte hartzen duela 18 urteko adin-multzoak. Parte-hartze handiena dute 17 urtekoek (% 41,18k), eta, ondoren, 16 urtekoek (% 29,58k). Hortaz, arrisku-faktore baten aurrean gaude, biztanle guztiak adingabeak direnez gero.

Kirol-apustuetan ibiltzen dira gehien, eta, ondoren, makina txanponjaleetan, lineako jokoetan, adibidez, pokerrean edo erruletan, eta, azkenik, partidetan.

4.2. AZTERKETA KUALITATIBOA

Erabili diren bi tresna metodologikoak izan dira eztabaida taldeak eta elkarrizketak «salbuespen-lekukoekin» edo ikerketarako informazio garrantzitsua zuten pertsonekin.

EZTABAIDA-TALDEAK

Eztabaida-taldea teknika kualitatiboa da, eta, pertsona-talde bati egindako elkarrizketaren edo eztabaidaren bidez, aztergaiari edo ikergaiari buruzko informazio esanguratsua biltzen du.

Leioako errealitatea aztertzeko, hainbat agente soziali eta hezkuntzakoei dei egin zaie, esku-hartzeko edo eragineko esparruen arabera, ikuspegi ezberdinetatik informazio globala eskuratzeko. **5 eztabaida-talde** sortu dira eta, guztira, 44 pertsonak parte hartu dute, ikastetxeen, familien, komunitatearen, aisialdiko eta ostalaritzako sektoreen esparruetakoak eta 14 eta 15 urte arteko nerabe-talde batek ere bai.

- 1. Ikastetxeen esparrua.** Honako ikastetxeetako **irakasleek** osatutako taldea: ARTAZA Romo BHI eta Mercedarias. 10 pertsonak parte hartu zuten.
- 2. Familiaren esparrua.** Barandiaran BHI ikastetxeko IGEko 6 pertsonak osatutako taldea.
- 3. Komunitatearen esparrua.** ANDRAK elkarteko 3 pertsonak osatutako taldea.
- 4. Aisialdiko eta ostalaritzako esparrua.** Ostalaritzako 3 pertsonak osatuta. Taberna Zaharra eta Paddy zaharrekoak.
- 5. Artaza Romo BHI-ko 14 eta 15 urteko nerabeen taldea.** Guztira, 22 pertsonak parte hartu dute (9 neskek, 11 mutilek eta 2 ez binariok).

Eztabaida-taldeak eta eginiko elkarrizketak hiru gai-bloke nagusiren arabera diseinatu dira:

- Adikzioen errealitatearen analisia Leioako udalerrian, orokorki helduz substantziarekin eta substantziarik gabe; drogen kontsumoa, ausazko jokoak eta apustuak eta pantailen erabilera.
- Udalerrian egiten diren esku-hartzeen, zerbitzuen eta adikzioen prebentzioarekin lotutako baliabideak ezagutzea.

- Antzemandako beharrak, proposamenak eta planari egindako ekarpenak.

Ezin da ahaztu, COVID 19-k sortutako osasun-egoerak taldeak sortzeko prozesua baldintzatu duela, tokiak murriztuz edo osasun-neurriekin eta -protokoloekin kezkatia izanez; eta horietan parte hartzeko oztopoak izan dira ere bai.

ELKARRIZKETAK SALBUESPEN-LEKUKOEI

Tresna hori aplikatu zaio elkarrizketa azpiegituratu eta zuzendu bati, galdera irekiak dituenari.

Eztabaida-taldean eduki-eskema berdinak jarraitu dituzte elkarrizketek, eta, horri esker, tresna kualitatibo bien emaitzak alderatu ahal izan dira.

Guztira, 14 elkarrizketa egin dira. Pertsona hauek parte hartu dute:

- Arlo ezberdinetako udal-teknikariak. Gazteria arlokoek, gizarte-zerbitzuetako langileak, haurrekin, gaztekin eta familiekin gizarte eta hezkuntzan esku hartzeko zerbitzua.
- Kargu politikoak.
- Herritarren segurtasun-agentekak.
- Hezkuntza-zentroaren osasun-langileak.

EZTABAIDA-TALDEETAKO ETA ELKARRIZKETETAKO ONDORIO NAGUSIAK.

Eztabaida-taldeetan eta elkarrizketetan ateratako ondorioak dira prozesuan parte hartu dutenen iritzi eta pertzepzio subjektiboak, eta horrek ez du zertan udalerriko errealitate objektiboa edo errealia islatu behar. Halere, tresna kualitatiboek informazio globala, desberdina eta osagarria dakarkite informazio objektiboari, eta horrek aukera ematen du fenomenoaren ikuspegi osoa izateko eta esku-hartzeak testuinguruko errealitatera egokitzeke eta haren arabera diseinatzeke.

Eskuratutako informazioa elkarrizketen eta eztabaida-taldean honako gai-bloke handietan egituratzen da.

Drogen kontsumoari buruz:

- Leioako biztanleen artean droga mota guztien kontsumoa normalizatuta eta hedatuta dagoenaren pertzepzioa. Bereziki kezkarria da adingabeen eta gazteen kontsumoa.
- Biztanleek gehien kontsumitutako substantziak: Alkohola, kanabisa, **tabakoa** eta psikofarmakoak, errezetarekin eta gabe. Beste substantzia batzuen kontsumoa handitu dela ohartu da ere bai, **nagusiki**, estimulagarriak, esaterako, kokaina, kristala eta speeda. Kontsumitzaileek hainbat substantzia kontsumitu eta nahasten dituzte, eta horrek arriskua handitzen du.
- kezkarria da kanabisaren kontsumo handia, adin guztietan; kontsumitzaileek ez dute arriskuaren pertzepzio handirik. Kontsumo ikusgarria, normalizatua eta hedatua da udalerrian.
- **Edari energetikoen kontsumo handia** antzeman da oso biztanle gazteen artean eta ia ez dute arriskuaren pertzepziorik.
- **Kezka orokorra** dago belaunaldi berriei drogen kontsumoaren aldeko balioen eta jarreraren inguruan **ematen ari zaien heziketagatik**. Gazteek ikusten dituzten ereduak errepikatzen dituzte. Biztanle helduen aisialdi-estiloak eta sozializazio-prozesua drogen kontsumoaren inguruan egiten dira, bereziki, alkohola eta tabakoaren inguruan.
- Leioako egitura geografikoa eta hirigintza-diseinua bide publikoan drogen kontsumoa eta salmenta errazten duen faktoretzat jotzen da. Leioa auzo sakabanatuetan konfiguraturik dagoenez eta hirigunetik aldentutako berdegune anitz dituen, aisialdiko jardueraz aire zabalean gozatzeko ez ezik, drogen kontsumoa nolabaiteko pribatutasunez kontsumitzeko aukera ematen du. Bestalde, udalerriko plazak seme-alaba txikiak dituzten familientzako diseinatuta daude, non tabernek eta kulunkek espazio berdinean dauden, eta horrek alkoholaren kontsumoan oinarritutako familia-aisialdiari laguntzen dio.
- Leioa ez da gaueko aisialdiko gunetzat hartzen, baina udalerriko toki urrunetan **«botiloia» egiteko guneak** daude. Antzaz, fenomeno horrek ez du bizikidetzako arazorik sortzen, baina gizartea zikinkeriarekin pozik ez dagoela ohar daiteke. Hona hemen botiloi-gune batzuk: «Pinosolo», «El molino», «Mendibile», «Artaza parkea», «Auditorio», unibertsitate-eremua, «Ondiz» eta gazteen lonjak. Halaber, botiloiarekin ez ezik, beste substantzia batzuen kontsumoarekin lotutako beste gune batzuk adierazi dira: Zerbantes plaza, Lamiakoko pilotalekuak, Lamiakoko areto-futbol zelaia, plaza gorria, Gaztelubideko aparkalekua, Txorierrri.
- Azkenaldian, erdigunetik gertuago dauden botiloi-guneak ikusten ari dira, adibidez, anbulatorioko plaza eta Barandiaran institutuko jolastokia. 12 eta 15 urte bitarteko adingabeak ibiltzen dira horietatik.
- Udalerrian **botiloia egiten duten 12 eta 15 urte arteko gazteen hazkuntza** ikusi da eta 2021eko udaberria adierazi da inflexio-puntu gisa, osasun-larrialdiaren neurriak bigundu zirenean.
- Ikusi denez, **adingabeek botiloia egitearen fenomenoarekin**

eta oso adin goiztiarrean (12-15 urte) graduazio handiko edari alkoholiko gehiegi edan eta zikintasuna sortzen dutenez, biztanleak kezkatu eta haserretu dira.

- 12 eta 15 urte arteko biztanleek asteburuetan udalerrian geratzeko joera dute. **16 urteetatik aurrera, beste herri edo diskoteka batzuetara doaz asko**, adibidez, Sonora, Santa Ana, Budda edo Momara.
- Adierazi dute **familiak ardua handirik eta mugarik gabe aritzen direla asteburuetan etxera itzultzeko ordutegiak ezartzean**. 14-15 urteko hainbat adingabe goizeko 4retan edo 5etan itzultzen dira etxera.
- **Kanabis-kontsumo ohikoa eta normalizatua** antzeman da haur eta nerabeen **gurasoen artean**. Kontsumoaren normalizazioaren, permisibitatearen eta arriskuaren pertzepzio baxuaren ondorioz, zenbait kasutan adin txikietan kontsumitzeari laguntzen ari zaiola antzematen da.
- **Drogen kontsumorako eta salmentarako eremu jakinak** daudela antzeman da, ezagunak eta historikoak dira udalerrian baina ez da esku hartzen.

Pantailen kontsumoari buruz:

- Biztanleak kezkatuta daude **pantailak gehiegi erabiltzen direlako**, ez soilik adingabeen artean, baizik eta gizarte osoan. Aurreko urteetan antzematen ari ginen arazoa zabaldu duela pandemiak, pantailen erabilera-denbora eta -aniztasuna handitu dituelako. Horrekin lotuta, familiak adierazi dutenez, **zailtasun handiagoak dituzte beren seme-alabei** teknologien erabilerarako **mugak eta arauak ezartzeko**. Halaber, oso galduta agertu dira seme-alabak heztearen inguruan, teknologien erabilera arduratsuekin eta gurasoen kontrola nola egitearekin lotuta. Bestalde, **adingabeek antsietate-maila handiagoak dituzte eta ez dituzte oso ondo hartzen erabilera-arauak eta -mugak**.
- Kasu ugari antzeman dira, non **oso haur txikiek ordu asko ematen dituzten bideojokoetan jolasten**. Ondorioz, arazoak izaten ari dira lo egiteko, antsietatea dute, jokabide-arazoak dituzte, ikasteko arazoak, ziberjazarpena...
- Eztabaida-taldeetako parte-hartzaile askok adierazi dutenez, familiak hezi behar dira pantailen erabilera arduratsuari buruz sentsibilizatu daitezten. Familia asko mugikorra erabiltzen ari dira haurtxoak entretenituta izateko, sor diezaieketen kaltearen berri izan gabe. Bestalde, antzaz, gero eta goizago erosten diete lehen telefono mugikorra, erabilera egokia egiteko prest egon gabe.
- Sentsazio orokorra dago **telefonoaren erabilera desegokiarekin lotutako gatazkak** handitzen ari direla. Adingabeek eginiko salaketak jasotzen ari dira mugikorrarekin sortutako gatazkengatik: *sexting*, ziberjazarpena.

Ausazko jokoak eta apustuak

- Gero eta pertsona gehiago, adin guztietakoak, ikus daitezke tabernetan edo udalerriko joko-areto jakinetan jokatzeko.
- **Gizartea kezkatuta dago adingabeak eta gazteak ausazko**

jokoetan eta apustueta aritzen direlako.

- Oso pertsona gazteen kasuak antzeman dira, **joko patologikoarekin arazoak dituztenenak**. Normalean familien baitan sortzen da alarma, zorrak edo familia barruko ebasketak direla medio.

EGITEN DIREN ESKU-HARTZEEN, ZERBITZUEN ETA ADIKZIOEN PREBENTZIOAREKIN LOTUTAKO BALIABIDEAK EZAGUTZEA

- Zerbitzuak eta programak ezagutzen dira haiekin harreman zuzena dagoen heinean, batera lan egiten delako (irakasleak, udaleko langileak...) edo zerbitzua nolabait erabili delako (beren seme-alabak doazen ikastetxeko esku-hartzeak ezagutzen dituzten familiak). Aitzitik, gazteek ez dute zerbitzua ezagutzen. Ez eta eskola-adinean seme-alabarik ez duten helduek ere, edo zerbitzuarekin loturarik ez dutenek ere ez. Oro har, ondorioztatu ahal dugu ez direla asko ezagutzen zerbitzua, programak, proiektuak eta jarduerak, beren filosofia, helburuak eta prebentzio-metodologia.

ANTZEMANDAKO BEHARRAK, HOBEKUNTZA PROPOSAMENAK ETA EKARPENAK

- **Sentsibilizazioa eta prebentzioa:** Programak eta ekintzak diseinatzea eta garatzea osasuna sustatzeko, adikzioak prebenitzeko eta hainbat esparrutan, hainbat kolektibori eta estrategia ezberdinekin informatzeko, komunikatzeko eta sentsibilizatzeko. Prebentzio- eta hezkuntza-programen alde jotzea lehentasunez.
- **Ikastetxeen esparrua:** Adikzioak prebenitzeko tailerrak mantentzea ikastetxeetan, Lehen Hezkuntzatik Batxilergora, eta Oinarrizko Lanbide Heziketan ere bai. Beste jarduketa batzuk gehitzea pantailen erabileraren, bideojokoen, ausazko jokoen eta apustuen arazoari heltzeko. Irakasleei laguntzea prebentzio-programak garatu ditzaten eta adikzio-kasuetan esku har dezaten. Programa erakargarriagoak eta berritzaileak diseinatzea, sare sozialak eta erreferente propioak erabiliz prebentziozko mezuak hobeto iristeko.
- **Familiaren esparrua:** Gurasoak sentsibilizatzea igortzen diren eredu garrantziari buruz, seme-alabekin inplikatzearen, heztearen eta gainbegiratzearen garrantziari buruz. Informazio- eta prestakuntza-sistemak sortzea familientzat. Estrategiak bilatzea garatzen diren jardueretan eta programetan familien inplikazio eta parte-hartze handiagoak lortzeko. Aholkularitzako edo orientazioko zerbitzu espezifikoa eta espezializatua sortzea adikzio- zailtasunak edo -arazoak dituzten pertsonentzat eta familientzat.
- **Komunitatearen esparrua:** Kanean eta gazteekin edo adikzio-arazoak dituztenekin jarduten duten hezitzaileekin lan egitea. Substantziak testatzeko programekin jarraitzea jaietan. Arriskuen informazioko eta murrizketako kanpainak egitea. Enplegu- eta prestakuntza-planak eta sare sozialak sendotzea pertsona kalteberentzat.
- **Esku-hartzeak adin goiztiarretan:** Ohitura-aldaketa eragin behar da gazteen artean, baina hori lortzeko, oso adin goiztiarretatik hasi beharra dago, substantziak kontsumitzen hasten denean edo beste adikzio-jokabide batzuk garatzen direnean, zailagoa baita ohiturak aldatzea. Hortaz, ahaleginak egin behar dira hezkuntzan eta prebentzian, kontsumitzen hasteko adina atzeratzeko. Haur eta Lehen Hezkuntzan esku hartzea ezinbestekoa da.

beren errealitatera moldatzen ez direlako. Mezu argia, zehatzak, errealak eta objektiboak behar dira, hartzaileen adinera eta generora egokituta. Substantziadun eta substantziarik gabeko adikzioei buruzko informazio errealak eta objektiboak ematen dieten mezuak nahiago dituzte gazteek. Ondorio errealei (positiboak eta negatiboak) buruzko informazioa jaso nahi dute, eta beren erabakiak hartu eta horien gaineko ondorioak beren gain hartu nahi dituzte.

- **Adikzioak substantziekin:** Substantziarik gabeko adikzioak nabarmentzea prebentzioaren, asistentziaren eta eskaintza kontrolatzearen aldeetatik, nagusiki, teknologien erabilera, bideojokoak, ausazko jokoak eta apustuak.
- **Gazteen parte-hartzea:** Gazteek parte hartzea sustatzea, jardueri, aisialdiko proposamenei eta abarrei buruzko erabakiak hartzean eta prebentzio-agenteen prestakuntzan, beren adineko biztanleengan edo gazteagoengan eragiteko.
- **Aisialdi osasungarriko alternatibak:** Biztanle guztientzako aisialdi osasungarriko eta kiroleko alternatibak hobetzea. Leioako gazteek beste udalerrri batzuetan ematen dute aisialdiko denbora gehiena eta horrek zailtzen du gure udalerriko adikzioen errealitatearen analisisa. Horregatik, komenigarria litzateke aisialdiko beste alternatiba batzuk eskaintzea, gazteentzako erakargarriagoa izan zedin Leioan bitzta egitea.
- **Eredu soziala:** Gizartearen faktoreak du eraginik handienetakoa haurren hazkuntzan eta nerabeek epe luzera hartzen dituzten ohituretan. Horregatik, zenbait drogen kontsumoa normalizatzeak edo tabernan makina txanponjalean jokatzeko kontraesanezko mezua bidaltzen dute irakatsi nahi denaren eta benetan irakasten ari garenaren artean. Arretatsuagoak izan beharko ginateke gizarte gisa helarazten dugunarekin.
- **Lan koordinatua eta sareko lana.** Lan-sistemak eta -egiturak sortu beharra dago, osasun-, gizarte- eta polizia-sistemen eta prebentzio- eta komunitate-sistemen artean. Koordinatuta eta sarean lan egin behar da zerbitzuen artean, udal-zerbitzuak ezagutzeko, egiten denaren berri izateko, beharrak antzemateko, sinergiak bateratzeko eta ahaleginak ez errepikatzeke. Koordinatuta eta sarean lan egin beharra dago, arazoak edo adikzio-kasuak antzemateko, **esku hartzeko** eta eratortzeko. Jarduketa-protokolo bateratua eta partekatua sortu behar da, kasuak azkar eta eraginkortasunez antzemateko, diagnostikoak egiteko eta eratortzeko. Adikzioen alorreko prestakuntza espezifikoa eman behar zaizkie udaleko teknikariei.
- **Prebentzio-zerbitzua eta programak hedatzea:** Prebentzio-zerbitzuari eta -programei buruzko informazioa hedatzea. Oro har, Leioako biztanleek ez dituzte ezagutzen prebentzio-zerbitzuak eskaintzen dituen baliabideak. Zerbitzua ezagutzen dute harekin harreman zuzena baino ez dutenek (ikasleen gurasoek, gizarte-langileek, osasun-langileek...).
- **Droga-saltokiak eta kontsumoguneak gehiago kontrolatzea:** Adingabeei alkohol eta tabakoaren salmenta gehiago kontrolatzea. Polizien kontrol handiagoa udalerriko botiloi-guneetan.
- Udal-ordenantza diseinatzea, adingabeen kontsumoa arautu dezan bide publikoan eta hezkuntza-alternatiba jaso dezaten.

5. GOGOETA ESTRATEGIKOA

1/2016 Legeak, apirilaren 7koak Adikzioen eta Droga Mendekotasunen gaineko Arreta Integralari buruzkoak, gai horri heltzeko testuingurua ezartzen du, pertsonen osasuna babesten lagundu nahi baitu, bereziki, adingabeena eta kolektibo kalteberena.

Adikzioen esparruan inplikaturako instituzioen eta agenteen aniztasuna eta heterogeneotasuna direla medio (fenomenoaren konplexutasunagatik), puntu honetan zehaztu behar da plan, estrategia eta programa ugari daudela arribidean.

Instituzio ezberdinen ekimenak, Europako esparrutik toki-esparrura, kontuan hartu behar dira eta Leioako adikzioen toki-planaren oinarria osatzen dute.

5.1. ERREFERENTZIAZKO ESTRATEGIAK ETA PLANAK

Drogei aurka egiteko EBren 2021-2025 Estrategia onartu zuen Europako Batzordeak 2020ko abenduaren 18an. Hiru jarduketa-ildoren inguruan eratu da, helburuak betetzen lagunduko dutenak:

- I.) Droga-eskaintza murriztea: segurtasuna hobetzea
- II.) Droga-eskakizuna murriztea: prebentzio-zerbitzuak, tratamendua eta asistentzia III.) Drogekin lotutako kalteei heltzea. Halaber, zeharkako hiru gairi heltzen die jarduketa-alorrei laguntzeko.
- IV.) Nazioarteko lankidetzak
- V.) Ikerkuntza, berrikuntza eta gerokoa
- VI.) Koordinazioa, gobernantza eta aplikazioa. Guztira, estrategiak hamaika lehentasun estrategiko jasotzen ditu.

Droga-eskakizuna murrizteko jarduketa-esparruan, hari aurka egiteko helbururako, neurri sorta bat ezarri du, garrantzia berdinekoak eta bata bestea sendotzen dutenak, zehazki, prebentzioa (ingurumenekoa, unibertuala, selektiboa eta adierazia), goiz antzematea eta esku-hartzea, orientazioa, tratamendua, errehabilitazioa eta gizarteratzea eta berrezartzea.

Droga-eskakizuna murrizteko esparruan, strategiaren helburua da haurren eta gazteen garapen ziurrari eta legez kanpoko drogen kontsumoa murrizteari laguntzea. Horrez gain, xede hauek ditu: kontsumitzen hasteko adina atzeratu, drogen kontsumoaren arazoa prebenitzea eta murriztea, berreskuratzea eta gizarteratzea aurreikustea diziplina anitzeko eta enpirikoki berretsitako plangintza integratu baten bidez, bai eta gizarte-, osasun- eta justizia-politiken arteko koherentzia sustatuz eta mantenduz.

Adikzioei buruzko estrategia nazionala: 2017-2024. Prebentzioko eta arriskua murrizteko arloaren barruan, honako helburu estrategikoak planteatu ditu:

10.1.1 Drogen eta adikzioa sortu dezaketen beste jokabide batzuen presentzia eta sustapena murriztea.

10.1.2 Drogetarako eta adikzioa sor dezaketen beste jokabide batzuen irisgarritasuna murriztea adingabeei.

10.1.3 Drogek eta mendekotasunek sortzen dituzten arriskuen eta kalteen kontzientzia soziala suspertzea, kontsumoari eta zenbait mendekotasun-jokabideri (jokoa, IKT) lotutako arriskuaren pertzepzioa handitzeko eta, horretarako, herritarren parte-hartzea izatea.

10.1.4 Gazteen artean, eta, bereziki, adingabeetan bidegabe zabaldutako

drogen kontsumoaren «normaltasuna» txikitzea, funtsean, kanabisarena eta alkoholarena.

10.1.5 Trebetasun eta gaitasun pertsonalak garatzea, drogen kontsumoen eta adikzioa sortu dezaketen jokabideen aurreko zaurgarritasuna murrizten dutenak.


10.1.6 Bizi ohitura osasuntsuak, teknologia berrien erabilera eta aisialdi-alternatiba osasuntsuak sustatzea, substantzien gehiegizko erabilerarekin eta beste mendekotasun-jokabide batzuekin bateraezinak direnak.

10.1.7 Arrisku handieneko kontsumoak goiz antzematea eta prebenitzea (

Adingabeen kontsumoak, haurdunen kontsumoak, ibilgailuak gidatu bitarteko kontsumoak...)

Osasun-plana (2013-2020rako Euskadiko osasun-politikak). Haren ustez, osasuna da pertsona guztiak gehien estimatzen duten balioetako bat; izan ere, gure bizitzako xedeak eta helburuak energia guztiakin betetzeko eta gure ahalmenak bultzatzeko aukera ematen digu. Era berean, hura gabe, gure gaitasunak murriztuko dira eta ez gara erabat aktibo egongo. Planak aintzat hartzen ditu osasunaren xedapen sozialen interesa eta ebidentziak, gero eta gehiago direnak. Eta lehentasuneko laugarren arloan ezartzen du HAURREN ETA GAZTEEN OSASUNA. Arreta-fokutzat jotzen du eta, zehazki, gazteen ohitura osasuntsuak hobetu eta jokabide arriskutsuak murriztu behar direla dio.

EAEko 2017-2021 adikzioen VII. planak kontuan hartzen ditu osasunaren xedapen sozialak. «Uretan gora» esku hartzen duten «kausen kausak» bezala ezagutzen dira ere bai, eta biztanleen osasun-mailan eta pertsonen beren bizitzan gain duten kontrolean inpaktu handia dute. Horregatik, osasunarekin lotutako jokabideen gain jardutea planteatzen du, ez soilik arreta indibidualerako neurrietan oinarrituta, baizik eta ingurune osasungarriak sortzera eta izaera sozialeko, ekonomikoko eta politikoko egiturazko faktoreetan eragitera bideratutako jarduketetan.



Euskal Autonomia Erkidegoko adikzioen VII. plana 5 jarduketeta-ardatzetan egituratzen da. Horietako 3 hezkuntzarekin eta prebentzioarekin, eskaintza murriztearekin eta kontrolatzearekin eta asistentziarekin eta gizarteratzearekin lotuta daude, eta gainerako biak zeharkakoagoak dira eta instituzioen koordinazioarekin eta esparru horretako ezagutza garatzearekin eta kudeatzearekin lotzen dira.

Euskadirako osasun-politiken esparruko estrategiak eta programak (2013-2020) eta EAEko adikzioen VII. plana:

- **Euskadi tabako-kerik gabe estrategia**, OMEren MPOWER estrategian oinarritua eta tabako-kontsumoaren prebalentzia murrizteko diseinatua;

Euskadiko osasun-sistema sendotzea helburua duena,

osasuna sustatzeko eta prebentzioko jarduketan artean, tabakismoa prebenitzea eta erretzaileari tabakoa uzten laguntzea nabarmendu nahi dituena.

- **Adingabeak eta alkohola programa**, besteak beste, helburu hauek ezartzen dituena: instituzioen ekintzak areagotzea adingabeen alkohol kontsumoari dagokionez, alkohola kontsumitzen duten adingabeen zifra murriztea eta hasiera-adina atzeratzea; gehiegizko kontsumo arriskutsuak murriztea; gazteen partaidetza handitzea osasunarekin lotutako politiketan eta edateko presioa txikitzea gazteen artean, bereziki, alkoholaren sustapenak, babesa eta eskuragarritasuna.

Erreferentziako beste plan batzuk:

- **Euskadiko 2018-2021 IV. gazte planak**, ongizateari eta bizitza osasuntsuari buruzko 2. ardatzean, gazteen artean arrisku-jokabideak edo adikzioak, substantziarekin edo gabe, prebenitzea proposatzen du.
- EAEko emakumeen eta gizonen berdintasunerako VII. planak, 1. ardatzean: emakumeen zaintza eta norbere zaintza sustatzea adin guztietan, 1.3. puntuan emakumeen zaintza eta norbere zaintza sustatzea adin guztietan.

5.2. ADIKZIOEN PLANA LEIOAKO UDALEKO BESTE PLAN BATZUEKIN LERROKATZEA

Adikzioen toki-planak bat egiten du Leioako honako planetan ezarritako helburuekin eta ekintzekin eta horiek betetzeko konpromisoa hartzen du:

Leioako emakumeen eta gizonen

berdintasunerako IV. plana (2019- 2022)

GOBERNAMENDU ONA ARDATZA:

01. PROGRAMA: KONPROMISO POLITIKOA

01.3. **helburua:** Emakumeen eta gizonen berdintasunerako bultzada-, koordinazio- eta partaidetza-egiturak sendotzea.

5. eta 6. **ekintzak:** Adikzioak prebenitzeko zerbitzuak parte hartzea berdintasunerako sailarteko batzordean eta berdintasunerako partaidetza-organoan, betiere egokitzen bada.

02. PROGRAMA: BERDINTASUNERAKO GAIKUNTZA

02.1. **helburua:** Langile politikoei eta teknikariei nahikoa ezagutza eta gaikuntza ematea maila guztietan, genero-ikuspegia txertatzeko.

11. **ekintza:** Adikzioak prebenitzeko zerbitzuak parte hartzea udaleko langileei zuzendutako emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko prestakuntza-saioretan, betiere egokitzen bada.

03. PROGRAMA: GENERO-IKUSPEGIA LAN-PROZEDURETAN

03.1. **helburua:** Genero-ikuspegia txertatzea estatistiketan eta ikerketetan.

12. **ekintza:** Memoriak eratzea sexuaren arabera bereizitako datuen erabileratik eta analisitik.

13. **ekintza:** Sexuaren aldagaia gehitzea programa guztietako onuradunen informazio biltzean.
14. **ekintza:** Programetan emakumeen eta gizonen parte-hartzea bereizita aztertzea.

Euskara sustatzeko 2018-2022 ekintza-plana

Adikzioen planak konpromisoa hartzen du euskara sustatzeko ekintza-planean ezarritako helburu hauek bultzatzeko.

4. puntua. Administrazioa

4.1. helburua: Administrazioan euskararen erabilera bultzatzea eta bermatzea

4.1.3. Herritarrek administrazioarekin idatzizko eta ahozko harremanak bi hizkuntza ofizialetan izan ditzaketela bermatzea.

4.1.6. Neurriak hartzea euskararen erabilera sustatzeko erakundearen ahozko harremanetan, barnekoetan eta kanpokoetan, eta beti errespetatzea herritarrek aukeratutako hizkuntza.

4.1.7. Euskararen erabilera sustatzea erakundearen idatzizko harremanetan, barnekoetan eta kanpokoetan, sormen-lana handitzeko, komunikazioaren kalitatea zaintzeko eta beste edozer baliabidetan.

4.2. helburua. Neurriak hartzea euskara laneko hizkuntza izateko. Zeharkako helburuak

Motibazioa euskararako

14. Sentsibilizazioa eta motibazioa

Euskara hedatzea

15. Barne-proiektzioa

16. Kanpo-proiektzioa

II.) 2019-2023 Immigrazio- eta elkarbizitza-plana kulturarteko izaerarekin

Adikzioen planak konpromisoa hartzen du Leioako udalerriko immigrazio- eta elkarbizitza-planean ezarritako ardatz eta ekintza hauek bultzatzeko.

2. ardatza: Sentsibilizazioa eta kulturarteko bizikidetzatza

8.2.1. Zurrumurruen aurkako estrategia

8.2.7. Tratu-berdintasuna jasotzen duten liburuxkak eta materialak hedatzea

3. ardatza: Antolakuntza instituzionala

8.3.2. Kulturarteko eta generoko aldagaiak gehitzea datuak biltzeko

5.3. ADIKZIOEN PLANAREN PRINTZIOPIO GIDARIAK

1/2016 Legeak, apirilaren 7koak, Adikzioen eta Droga Mendekotasunen gaineko Arreta Integralari buruzkoak honako printzipio gidari hauek jasotzen ditu, betiere osasun publikoaren ikuspegitik eta politika guztietan osasunaren paradigmatic, zeinen arabera beste sektore, administrazio-maila eta agente sozialekin baterakuntza bilatzea bultzatzen den:

- a) Erantzukizun publiko, koordinazio instituzional eta erantzunkidetasun sozialaren printzipioak busti behar ditu arlo horretan prebentzioa, asistentzia eta inklusioari heltzeko behar diren sektoreko esku-hartzeak.
- b) Adikzioen arretan esku hartzen duten agente guztien sektoreartekotasuna, lankidetzeta eta koordinazioa.
- c) Esku-hartzeen sektoreartekotasuna, emandako arreta integrala dela bermatzeko xedez.
- d) Bizi ohitura osasuntsuak suspertu eta gizartearen adikzio-jarrera eta -jokabideak aldatzen dituen osasunaren kultura aktiboki sustatzea.
- e) Ekitatea osasunean, pertsona guztiei aukera berdinak emanez osasuna garatzeko eta mantentzeko beharraren arabera, zerbitzuak berdintasunez eskuratuz, diskriminaziorik gabe.
- f) Genero-ikuspegia ekitatearen ikuspuntu partikular gisa, gizonen eta emakumeen artean dauden desabantailak edo desberdintasunak kendu nahi dituenak.
- g) Haurrak eta nerabeak bereziki kontuan hartzea esku-hartze espezifikoekin, bereziki, hezkuntzaren eta familiaren esparruetan.
- h) Prebentzioaren ikuspegia txertatzea prestazio, zerbitzu, programa eta jarduera guztietan, ahal den neurrian, adikzioak sortu edo gaizkiagotu baino lehen ekiteko.
- i) Herritarrek parte hartzea, laguntzea eta erantzunkidetasuna izatea adikzioen esparruko programen eta jarduketan plangintzan, erakuntzan, garapenean eta jarraipenean.
- j) Elkarrekin, fundazioak eta bestelako irabazi asmorik gabeko erakundeak sustatzea, parte hartzea, lankidetzan aritzea eta laguntzea adikzioen eta droga-mendekotasunen arloan.
- k) Arlo horretako jarduketan eta programen emaitzen eraginkortasuna etengabe ebaluatzea.
- l) Zerbitzuen eta prestazioen kalitatea.

5.4. ADIKZIOEN TOKI-PLANAREN LEHENTASUNEZKO ILDOAK ETA ILDO ESTRATEGIKOAK

JARDUKETA-ARDATZEI, PRINTZIPIO GIDARIEI, EAEko Adikzioen VII. planeko balioei eta Leioan EGINIKO ESKU-HARTZEEN ANALISIARI ETA BALORAZIOARI helduta,

honako lehentasunezko ildo estrategikoa eta jarduketa-ildoak ezarri dira:

1. Gizartean errotutako substantzien eta jokabideen normalizazioa haustea, bereziki, tabakoarena eta alkoholarena, eta kanabisarena eta jokoarena ere bai, besteak beste.
2. Ahaleginak egitea prebentziorako eta herritarrek hezteko, bizi ohitura osasuntsuak eduki eta kontsumo arduratsua egin dezaten, eta kolektibo kalteberak babestea beti.
3. Talde kalteberak, haurrak, nerabeak eta gazteak, babestu behar dira beren garapen-unera egokitutako hezkuntza- eta prebentzio-programekin. Eta familiak eta irakasleak garrantzia bereziko hezkuntza-agente gisa.
4. Haurtzaroan, nerabezaroan eta gazterian babes-faktoreak eta arrisku-faktoreak sendotzen laguntzea, bai eta familiei laguntzea ere eskolaren, familiaren eta komunitatearen esparruetan.
5. Biztanle-talde ezberdinei eta beren beharrei egokitutako programak eta esku-hartzeak garatzea, jarduketa indibidualizatu eta kolektibo unibertsalekin, hautagarriekin eta adieraziekin.
6. Familien eta herritarren prestakuntza- eta informazio-beharrei erantzutea prebentziorako lehentasunezko agente gisa.
7. Udalerriko adingabeentzako erreferentziazkoak diren testuinguru normalizatuetan esku hartzea: ikastetxean, sare sozialetan eta digitaletan eta komunitatearen espazioan.
8. Erreferentziazko beste prebentzio-espazio eta -proiektu batzuk ahalbidetzea nerabeentzat komunitatearen ingurunean. (Gazteguneak, herriko jaiak, lonjak...).
9. Adikziorik garatzeko jokabide edo faktore arriskutsuak dituzten gazteen detekzio goiztiarrari laguntzea, estrategia eta jarduketa hautagarriak eta adieraziak garatuz.
10. Ahalmen kognitiboetan, jokabidezkoetan, sozialetan eta emozionaletan oinarritutako jarduketan plangintza egitea. Prebentzio espezifikoa eta ez espezifikoa.
11. Informazio-, aholkularitza- eta orientazio-zerbitzua ezartzea adikzio-arazoak dituzten pertsonentzat eta familientzat.
12. Droga legalen (alkohola kontsumitzea bide publikoan), ausazko jokoen eta diruzko apustuen inguruan eginiko jardueren salmenta-kontrola, eskuragarritasuna, kontsumoa, publizitatea eta sustapena garatzea, bai eta legez kanpoko drogena ere, eta arreta berezia ematea adingabeei, dagozkion legeen eta araudien eskumenen markoa eta marko arautzailea eta zehatzailea aintzat hartuta.
13. Udaleko testuingurura moldatutako jarduketak ezartzea, tokiko eta

udalaz gaindiko beste sistema batzuekin koordinatuta eta sarean lan eginez.

14. Programak eta esku-hartzeak egitea eta horiek etengabe ebaluatzea eta egiaztatzea.
15. Genero-ikuspegia, aniztasuna eta kultura anitzeko errealitatea zeharka gehitzea ekintza guztietan.

5.5. ESKU HARTZEKO LEHENTASUNEZKO ESPAZIOAK ETA KOLEKTIBOAK

Leioako adikzioen planak modu global eta integralean heldu nahi die adikzioei, eta osasunaren sustapena eta adikzioen prebentzioa lehenetsi nahi ditu Leioar guztiengan. Arreta berezia eman nahi die kolektibo kalteberei, hala nola haurrei, nerabeei eta gazteei, prebentzio-programa unibertsalak, hautagarriak eta adieraziak eginez eskolaren, familien, komunitatearen, aisialdiaren eta jaien esparruetan.

Jarraian, **XEDE KOLEKTIBOAK** eta **JARDUKETA-ESPAZIOAK ETA - EREMUAK** zehaztuko dira, adikzioak prebenitzeko zerbitzuaren jardunaren oinarriak izango direnak.

JARDUKETA-EREMUAK	KOLEKTIBOAK	ESPAZIOAK
IKASTETXEEN ESPARRUA	Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako, Batxilergoko eta Oinarrizko Lanbide Heziketako ikasleak. Irakasleak, zuzendaritza taldeak eta orientazio taldeak	Udalerriko ikastetxe publikoak eta itunduak.
FAMILIAREN ESPARRUA	BIGE familiak	Komunitatearen espazioak Adikzioen inguruko aholkularitza- eta orientazio-zerbitzua
KOMUNITATEAREN ESPARRUA	Nerabeak eta gazteak Familiak Agente sozialak eta komunitatekoak	Gaztegunea Adikzioen inguruko aholkularitza- eta orientazio-zerbitzua
AISIALDIAREN ETA JAIEN ESPARRUA	Herritarrak nerabeak eta	Jaien espazioa

6. PLANAREN JARDUKETA-PLANGINTZA

2022-2026 aldian garatu beharreko programak eta esku-hartzeak jasotzen ditu adikzioen planak, osasuna sustatzearekin, prebentzioarekin, eskaintza murriztearekin, asistentziarekin eta gizarte-inklusioarekin lotuta, EAeko adikzioen VII. planarekin bat eginez eta zeharkako eta diziplina anitzeko ikuspuntu integraletik.

Hortaz, adikzioen alorrean udalerrian garatuko diren estrategien eta esku-hartzeen plangintzarako eta antolamendurako tresna da Leioako adikzioen plana. Adikzioak zeharkako ikuspegitik ulertuko dira eta planean, Leioako adikzioak prebenitzeko zerbitzuak garatutako esku-hartzeez gain, beste esparru eta udal-arlo batzuetako esku-hartzeak jasotzen dira, esaterako, hezkuntzakoak, kulturakoak, gazteriakoak, kirolekoak, gizarte-zerbitzuetakoak, herritarren segurtasunekoak edo emakumearen arlokoak; horiek guztiek eragina eta inpaktua dute planean.

Adikzioen fenomenoaren konplexutasuna dela medio, modu integralean heldu behar zaio halaberrez, udalaren eskumen markoaren barruan hainbat ekintza eta estrategia osatuz, zehazki, prebentziorako, osasuna sustatzeko, eskaintza murrizteko eta asistentzia sozialerako eta sanitariorako. Horregatik, adikzioen zeharkako ikuspegi integralarekin, udal-arlo ezberdinetako ekintzak jasotzen ditu plan honek, hain zuzen ere, planaren helburuak garatzen laguntzen duten eta planaren gain eragina duten ekintzak.

Hala ere, Leioako udaleko adikzioak prebenitzeko zerbitzuaren helburua da planaren baldintza guztiak zuzentzea, koordinatzea, gainbegiratzea eta ebaluatzea eta 1. ardatza zehazki garatzea osasuna sustatu eta komunitatean adikzioak prebenitzen dituzten ekintzekin, eta, bereziki, kolektibo kalteberen artean. Horretarako, ikuspegi global eta komunitarioa hartzen du abiapuntu, non ezinbestekoa den udal-arlo ezberdinak, hirugarren sektoreko erakundeak eta udalerriko agente sozial eta komunitarioak bateratzea eta denek parte hartzea.

Planaren egiturazko aldaketa bat adikzioei modu globalean heltzean datza. Horrela, droga-mendekotasunen esku-hartze espezifikokoak gaitutako dira eta substantziarik gabeko adikzioen jarduketa-markoa zabalduko da. Substantziarik gabeko adikzio nabariak dira teknologiak, bideojokoak, lineako jokoak, ausazko jokoak eta apustuak.

Izaera kontinuista du planak, aurreko planean errotutako eta berretsitako esku-hartzeak gehitu dira eta. Halere, plan operatiboa nahikoa gida malgua da behar berriei eta etorkizuneko erronkei erantzuna emateko gero eta aldakorragoa den testuinguruan.

Hau da Leioako adikzioen planaren egitura eta antolamendua: *EAeko adikzioen VII. planaren 5 ardatzak*, 12 helburu eta 39 ekintza, datozen 5 urteetan zehar garatzekoak. (2022-2026)

Hona hemen planaren ardatzak:

1. ARDATZA: ADIKZIOAK PREBENITZEA ETA OSASUNA SUSTATzea
2. ARDATZA: ESKAINTZA MURRIZTEA
3. ARDATZA: ASISTENTZIA SANITARIOA ETA SOZIOSANITARIOA
4. ARDATZA: EZAGUTZA, PRESKUNTZA ETA EBALUAZIOA KUDEATzea
5. ARDATZA: LIDERGOA ETA KOORDINAZIOA

ARDATZAK	HELBURUAK	AURREI KUSITA KO EKINTZ
1. ARDATZA: ADIKZIOAK PREBENITZEA ETA OSASUNA SUSTATZEA	<p>1.1. Osasunaren sustapena eta prebentzio unibertsal hautakorra bultzatzea adikzioen eredu biopsikosozaletik eta ikuspegi komunitariotik, agente komunitario ezberdinen artean koordinazioa eta sarean lan egitea suspertuz.</p> <p>1.2. Arrisku bereziko egoeran edo adikziorik garatzeko egoeran dauden pertsonen eta kolektiboen detekzio goiztiarra bultzatzea.</p> <p>1.3. Substantzien kontsumoekin eta adikzioak garatzeko gehiegizko jokabide arriskutsuekin lotutako arriskuak arintzea aisialdiko eta jaietako espazioetan.</p> <p>1.4. Ekintzak garatzea substantzia kontsumituenen eta gizarteak onartzen dituenen normalizazioa hausteko.</p>	20
2. ARDATZA: ESKAINZTA MURRITZEA	<p>2.1. Tabakoaren, alkoholaren eta adikzioa sor dezaketen beste legezko substantzia batzuen sustapenarekin, publizitatearekin, salmentarekin, hornidurarekin eta kontsumoarekin lotutako jarduerak kontrolatzea indarrean dagoen araudiaren eta udalaren eskumenen barruan.</p> <p>2.2. Legez kanpoko drogen merkataritza kontrolatzea eta eskaintza eta presentzia txikitzea eskumenen eta legearen markoaren barruan.</p>	7
3. ARDATZA: ASISTENTZIA SANITARIOA ETA SOZIOSANITA	<p>3.1. Arreta sanitarioa, soziala eta hezkuntzako eskaintza, adikzioak dituzten edo izan ditzaketen pertsonen behar indibidualetan oinarrituta eta pertsona bakoitzaren berezitasuna errespetatuta udalaren eskumenen markoaren barruan.</p>	3
4. ARDATZA: EZAGUTZA, PRESKUNTZA ETA EBALUAZIOA	<p>4.1. Adikzioen ezagutzaren garapena bultzatzea toki-mailan.</p> <p>4.2. Programak eta ekintzak ebaluatzea.</p>	3
5. ARDATZA: LIDERGOA ETA KOORDINAZIOA	<p>5.1. Planaren esku-hartzeak hedatzea, aplikatzea eta garatzea.</p> <p>5.2. Lidergoa, koordinazioa eta udalerrian adikzioen esparruan inplikaturako agente publiko eta pribatu ezberdinen arteko laguntza ezartzea, sinergiak</p>	6

EAE-KO ADIKZIOEN VII. PLANAREN ARDATZEI HELDUTA ESKU HARTZEKO PLAN OPERATIBOA

1. ARDATZA: ADIKZIOAK PREBENITZEA ETA OSASUNA SUSTATZEA

Helburu orokora: Osasunaren sustapena eta adikzioen prebentzioa bultzatzea udalerrian, eta, horretarako, osasunaren faktore erabakigarrien gaineko kontrol handiagorako ahalmena garatzea herritarren artean, bereziki, adingabeen artean, eta, halaber, aukera osasuntsuak errazten dituzten inguruneak sortzea.

Helburu espezifikoak	Ekintzak	Ebaluazio-adierazleak
